



**Jesus Goldaraz  
filologo eta apaiza**

03

Euskal Kultur Elkargoak antolatutako mahai monografikoan Eliza eta euskara izan zituzten aztergai. Tartean zegoen Jesus Goldaraz ere eta horri buruz galdetu diogu.



**Doneztebe nagusi  
Laxoa Txapelketan**

32

Doneztebeko taldeak irabazi du Baztan-Errekako Laxoa Txapelketaren 29. edizioa. Abuztuaren 3an jokatu zen finala eta Doneztebe Ak 9 eta 8 irabazi zion Irurita Bri.

2008ko irailaren 4a • XXVIII. urtea  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

OSPAKIZUN EGUNA IRAILAREN 13AN

## 04 25 urte beteko ditu aurten Iturengo Joaldunen Egunak



# Lasao

• egurrezko altzaria

Fabrikako prezioetan zure etxera  
Gaztainondo, gereziko eta haritzezko altzariak  
Gaurko diseinu eta kolore berriak, beti egurrean



Lasao Industrialdea • AZPEITIA  
tel. 943 15 11 82 • informacion@lasao.com

[www.lasao.com](http://www.lasao.com)



**Zatoz gurekin  
musikaz goatzera**

**AURREMATRIKULA:**  
Irailren 1etik 15era

**BULEGO ORDUTEGIA:**  
9:30-13:00

# BERAKO UDAL MUSIKA ESKOLA

## Isidoro Fagoaga

[www.berakoudala.net/udala/instalazioak/musikaeskola](http://www.berakoudala.net/udala/instalazioak/musikaeskola)

ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA  
Legia, 26 • BERA  
Tfnoa-Faxa: 948 631 205  
[musikaeskola@bera.animsa.es](mailto:musikaeskola@bera.animsa.es)

DATUAK...

- Euskara Kultur Elkargoak antolatuta, bortzgarren mahai monografikoan Eliza eta Euskara izan ziren aztergai ekainean.
- Eliza katolikoaren ikuspuntutik euskarak Nafarroan duen egoera aztertzeko txostena aurkeztu zuten orduan Iruñean. Ikerlari, apaiz eta filologoek egindako lana da, eta tartean dago Jesus Goldaraz filologo eta apaiza.
- Euskara eta euskalduna izatea beretzat zer den azaltzeaz gain, kezkatua dagoela adierazi digu euskarak gizartean eta Elizan duen egoera zein den ikusita.



Jesus GOLDARAZ *Doneztebe, Legasa, Elgorriaga eta Narbarteko apaiza* ARGAZKIA: G. PIKABEA

# «Hizkuntza bat ez da gainerakoak baino gehiago edo guttiago»

Gurutze PIKABEA

**Zer da zuretzat euskara?**

Euskara altxor preziatua da. Hizkuntza zaharra izaki, herentzia bat da, gure herriarentzat ohorea. Beraz, denon ardua da hori baloratzea, estimatzea, zaintzea, erabiltzea eta ezagutaraztea. Gure esku dago, gainera, ondorengo belaunaldiei transmititzea, modu bizi, sakon, eroso eta normalizatuan. Hizkuntza bat hizkuntza komunitate bat da, hiztunen komunitatea. Gizabana-koen hizkuntzak baino ez dira existitzen eta gure kasuan, gu gara, euskaldunak, euskaldun komunitatea. Hizkuntza da komunitatea sortzen duena, eta gure herriaren izenean argi dago herria eta hizkuntzaren arteko sinbiosi hori: Euskal (euskaradun) Herria.

**Nola ikusten duzu euskara?**

Euskara blokeatuta dago bi hizkuntza dominatzaileen ezarpena dela eta, horiek baitira Euskal Herria lotuta daukaten lurralde politikoko bi hizkuntza ofizialak. Gaztelaniarekin eta frantsesarekin alderatuz, euskara senide pobrea da, bertze biek pobretu eta baztertu dutelako bere eremu linguistikoan. Baina hizkuntzalaritzan, hizkuntza bat ez da

**«Ebanjelioko mezu nagusia Jaungoikoa Maitasuna dela bada, euskaldunak ez du hori sinistuko mezu hori ez bazaio euskaraz adierazten. Euskara bertze hizkuntzen mailan onartu behar da»**

gainerakoak baino gehiago edo guttiago, ezta hobeia edo txarragoa ere. **Nola lotzen dituzu Eliza eta euskara?**

Adibide bat emate aldera, euskaldunarentzat ez dira gauza bera *Dios* eta *Jaungoikoa*, ez dituzte konnotazio berak. Bere baitan, ondorioak eta sententzioak desberdinak dira. Hortaz, ezin da onartu Elizako zenbait girotan erabilia den argudio hau, silogismoa dena: «*garrantzitsuena denei mezua ailegatzea da, guztiengana ahalik eta argien irits dadila; guztiak gaztelania ulertzen dutenez, mezua ulergarria denez hizkuntza horretan, adieraz diezaiogun mezua hizkuntza horretan*». Euskara komunikaziorako instrumentu soil bezala erabiliz, oinarritzko bertze alde batzuk kontuan hartu gabe, dudarik ez dago euska-

ra baztertu egiten dela. Euskara, ordea, mezu bat transmititzeko instrumentua izateaz gain, euskara bera mezua da. Edukia berdina izanagatik ere, niri ez zait mezu bera iristen euskaraz edo gaztelaniaz entzun edo irakurrita. Euskaraz irakurri edo entzutean, euskalduna naizela onartzen dutela ikusten dut, eta beraz, errespetatzen nautela. Jesusen ebanjelioko mezu nagusia Jaungoikoa Maitasuna dela bada, euskaldun kontzientek ez du hori sinistuko mezu hori ez bazaio euskaraz adierazten. Sinistun horri ez zaio behar bezala erantzuten Jaungoikoak euskaldunak ere maite dituela bertze hizkuntza batean erranez gero. Euskara bertze hizkuntzen mailan onartu behar da, herri honen nortasunaren adierazle, eta bertze herrien errespetuaren ikur.

**Zein da euskararen egoera Elizan?**

Gizartean euskararen egoera kezkatagarria da, eta horrek arduratu egiten nau. Baina Elizan, kezkatzeaz gain, min egiten dit. Behartsuen alde egitea baldin bada lehentasuna, gure Eliza urrutiti dago euskara hala kontsideratetik, eta beraz, euskara indar utopikoa, komunitatearen sortzailea, kontsideratetik.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Iturengo joaldunek urtean behin egiten dute bisita Amezitia auzora eta hori Joaldunen Egunean izaten da.

## 25. urteurrena beteko du aurten Iturengo Joaldunen Eguna

Horren harira, besta berezia iragarri dute irailaren 13rako

**Urteak pasatu dira Iturengo joaldunak Euskal Herrian eta kanpoan barna joareak jotzen ibiltzen hasi zirenetik. Hain zuzen, ateraldi haietako batean sortu zen aurten 25 urte beteko dituen Joaldunen Eguna egiteko ideia. «Joareekin Zarautzera joanak ginen batean, joaldunen besta bat egin behar genuela gogotu zitzaigun, joaldun zahar guztiei omenaldi gisako bat eskaintzeko». Halaxe azaldu digu Jabier Bereau Iturengo joaldunak. Eta gogotu eta egin. Geroztik 25 urte pasatu dira, eta mende laurdena modu berezi batean ospatze aldera, besta handia iragarri dute irailaren 13rako. Jatorriz espirtu txarrak eta izurriteak uxatzeko errittoa zena, gaur egun, iturendar, aurtiztar eta zubietarren kulturaren zati garrantzitsu bihurtua da. Gainera, urteekin gero eta indar haundiagoa hartzen ari da. Hala, gaur egun, Euskal Herrian nahiz kanpoan ezagunak dira azpiko gona zuria, gerrikoa eta ardi larrua soinean, ttunturrua buruan, isipua eskuineko eskuan, zapi gorria lepoan eta nola ez, joareak bizkarrean daramatzaten pertsonaiak. Joaldunak dira.**

### Gurutze PIKABEA

Doinu berezia duen besta izanen da Iturenen heldu den irailaren 13an: Joaldunen Eguna. Herritarrentzat egun handia, dudarik gabe, eta kanpoko bisitarietarako ikuskizuna. Duela 25 urte egin zen lehenbizikoz joaldun zaharren omenezko besta, 1983an. Urte hartan joaldun zaharrak bildu ziren batez ere. 25 urte inguru edukiko zituen orduan Jabier Bereau iturendarrak eta ongi gogoan du egun hura: «14-16 bat joaldun elkartu ginen orduan, eta orain normalean 20tik goiti elkartzen gara. Halere aurten gehiago biltzeko asmoa dugu, zahar zein gazte. Ea 40ra allegatzen garen». Aurten gehiago, aldi honetako berezia baita. Lehendabiziko Joaldunen Eguna egin zenean bestari eustea pentsatu zuten, «urtean egun aunitz izaten direlako joareak jo gabe eta ohitura mantentzeko aukera ona delako. Afi-

## Jabier BERAU Iturengo joalduna



### Nolatan otu zitzazuen Joaldunen Eguna egitea?

Duela 25 urte ere joareak jutzen ibiltzen ginen kanpoan eta Zarautzera joanak ginen batean, joaldunen besta bat egin behar genuela gogotu zitzaigun, joaldun zahar guztien omenez. Urrian izan zen hori eta lehenbiziko urteetan ere urrian egin zen besta, baina gero irailera aldatu zen, urrian Nafarroa Oinez, Kilometroak eta halako bestak izaten direlako.

### Geroztik urtero egin da besta hau...

Bai, urtero. Lehenbizikoa egin eta bestari eustea pentsatu genuen, urtean egun aunitz izaten direlako joareak jo ga-

be eta joaldunak mantentzeko aukera ona delako. Afizio haundiagoa sortzen da.

### 25 urteotan aldaketakegon izanen dira, ez?

Bai, orain joaldunak gehiago gara. Lehen aldia 14-16 bat elkartuko ginen, eta orain 20tik goiti biltzen gara. Hala ere, aurten gehiago biltzeko asmoa dugu, zahar zein gazte. Ea 40ra ailegatzen garen.

### Zer erran nahi du zuentzat joalduna izateak?

Ituren, Aurtitz eta Zubietan joalduna izatea zerbait haundia da, gure kultura da. Gazte gehienak joaldunak dira, eta hori ttikitatik datorren afizioa da. Gainera, ohiturak baidu segida.

### Noizkoak ote dira joaldunak?

Ez dakigu. Beti horrela eza-gutu ditugu baina urteekin gauza batzuk berritu egin dira. Adibidez, lehenago Iturenen etxeko zapi zaharra paratzen zen lepoan, eta orain zapi gorria erabiltzen dugu gehienok. Lehengo garaietako inauterietan, zenbaitetan, euria egiten zuenean, ttunturrua ez zen jaunzten euriarekin hondatzen zelako eta zapela paratzen zen. Ni ere ibilia naiz euriagatik ttunturrurik gabe, eta horren orde zapelarekin. Horrez gain, bi modu daude janzteko: inauterietan osotasunean jaunzten ziren, astelehen eta asteartearekin, eta puxkak biltzeko bertze modura ibiltzen ziren. Gainerakoan, ez da al-daketa haundiegirik egon.

## «Ituren, Aurtitz eta Zubietan joalduna izatea zerbait haundia da, gure kultura da»

zio haundiagoa sortzen da». Horren adibide, gaur egun herriko gazte gehienak joaldunak dira.

Lehenbiziko urteetan besta hau joaldunek antolatzen bazuten ere, Ibintza Kultur Taldearen sorrerarekin, honek hartu zuen lekukoa, eta orain bera da antolatzailea. Aurtengo bestaren antolaketan Ibintza Kultur Taldea, Joaldunen Elkarte eta Inauterietako Batzordea ibili dira. Normalean Iturengo bestak pasatu ondotik ekiten diote Joaldunen Eguna prestatzeari, baina aurten, «egun haundiagoa egin nahi dugunez», dio Bereauk, ekain aldera egin zituzten lehen bilerak. Irailaren 13rako astebete eta egun batzuen faltan, dagoeneko eguneko egitaraua lotu dute: goizean Amezi auzoan baserriz baserri ibili ondotik eguerdian herrira itzuliko dira han bueltaka ibiliko diren joaldun zaharrekin biltzeko. Herritarren arteko aizkora apustua ere izanen da egun horretan. Bertsolariak ere han izanen dira, eta herri bazkaria hurrengo hitzordua. Aurten karpa batean, jende aunitz bilduko delako. Bestari segida emateko dantzaldia.

### URTEKO HITZORDURIK HAUNDIENA INAUTERIETAN

Joaldunen Egunaz gain, inauterietan eta Errege Egunaren bezperan izaten dituzte Iturengo joaldunek urteko hitzorduak. Aspaldiko ohiturak dira horiek ere, baina guztien gainetik inau-

teriak nabarmendu dizkigu Jabier Bereauk: «oinarrian inauterietan daude, besta haundiak dira eta guretzat garrantzitsuenak. Horez dugu hutsik egiten». Izan ere, Joaldunen Eguna eta Errege bezperakoa gerora sortutako ohiturak dira. Baina hauek ere euren xarma dute.

Urtarrilaren 5ean, arratsaldean, joaldun gaztetxoek txanda izaten da eta gauen, berriz, helduena. Gutti goiti-beheiti inauterietako itzulia egiten dute: inauterietako astelehenean, Zubietako joaldunak Iturenerantz abiatzen dira. Aurtiztik pasatu eta bertako joaldunekin elkartu ondotik Iturengoe-kin bat egiten dute. Iturengo herriari itzulia emandakoan akitzen da asteleheneko hitzordua. Asteartearekin, berriz, alderantziz. Iturengo joaldunak Zubietara joaten dira, eta bidean Aurtizkoekin elkartu eta elkarrekin egiten dute Zubietarako bidea.

### AEBAK HELBURU

Euskal Herria, Paris, Granollers (Bartzelona), Alcoi (Alacant), Paris, Kanariar Uharteak... Ez dira ez bat ez bi Iturengo joaldunek dagoeneko bisitu dituzten txokoak. «Gure kultura kanpoan ezagutaraztea hagitz garrantzitsua» dela irizita, oraindik ere joareak bizkarrean batera eta bertzera ibiltzeko asmoa dute. Momentuan begiz jota duten tokia Amerikako Estatu Batuak (AEB) dira. Kaliforniara Euskal Bestaren batera joan nahiko lukete.

## OSPAKIZUN EGUNA

Irailaren 13a, egun berezia izatea nahi dute Iturenen eta horretarako egun osoko egitaraua prestatu dute Ibintza Kultur Taldeak, Joaldunen Elkarteak eta Inauterietako Batzordeak elkarlanean. Goiz-goizetik somatuko mugimendua herrian eta herri bazterretan:

- Goizean joaldunak eta trikitilariak baserriz-baserri eta herrian ibiliko dira.
- 13:30ean herritarren arteko aizkora apustua: Latxane eta Errotzaine, A. Erregerena eta R. Untxaloren aurka.
- Segidan bertsolariak.
- 15:00etan herri bazkaria Xabier Amuriza eta Jon Maia bertsolariekin.
- Ondotik dantzaldia Mikel Salaberri musikariarekin.
- 00:30etik aurrera dantzaldia eta gaupasa Joxelu Anaiak taldearekin.



## ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
www.ttipi.net  
info@ttipi.net

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemmanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Maitte Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakes Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leizeta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

### 2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	27 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du.

## ● IRAKURLEAK MINTZO ●

### Euskararen egoera Nafarroan

Hemen esanen dudanak balioko du bereziki Nafarroa Garairako, baina, jakina, oro har, Euskal Herri osorako ere balio lezake.

Jarraitu baino lehen zera azaldu nahi dut, bi esparru nagusitan zatituko dudala orrialde honetan adieraziko dudana, alegia, bat, eremu publikoarena nolabait esateko: administrazioak, gobernuak, legeak, e.a., eta bestea, alor pribatuarena: harreman pertsonalak, kultur kontsumioa, euskara transmisioa, eta bat eta beste.

Lehenengoaren inguruan ez dut asko hitz eginen, denok dakigu eta zer egoera zaila dugun Euskal Herri osoan euskarari dagokionez, bereziki Ipar Euskal Herria eta Nafarroako Foru Erkidegoan. Espainia, Frantzia eta Nafarroako Gobernuak ez diote asko laguntzen euskarari, are gehiago, kasu askotan esan liteke aurkakoa egiten dutela, eta, jakina, beren legeak, arautegiek, ordenantzek, administrazio publikoek, eta abar, modu bertsuan jokatzeko dute, horregatik, nire iritziz, arlo horretan euskaltzale, ezkertiar, aber-tzale guzti-guztiok, eta abarrek jarraitu behar dugu lan serioan, hor pixkanaka-pixkanaka, egoera aldatzeko lorpenak eskuratzen, hau da, legeak, ordenantzak, araudiak, e.a. hobetuz, horrek dakartzan ondorio guztiek.

Bigarrena, ordea, nire ustez, eskuragarriago dugu, hots, askotan

aukeratu ahal ditugu hedabideak, prentsa, abestiak, zinema –hau gutxiagotan-, literatura, aldizkariak, elkarrizketak –etxean, kalean, lantokian, aisialdian...-, e.a. euskaraz ala erdaraz izatea. Beste horrenbeste gertatzen da gurasoen transmisioarekin, etorkinekin... Denean erakusbide onak eta txarrak ikusten ditut. Konparaziora, adituek askotan esaten digute euskal produktuen kontsumoa oso txikia dela, eta hori bakarrik euskaldunon ardura da, hau da, gurea. Halaber, nire aburuz, gehiegitan ikusten dira euskaldunak beraien artean lasai-lasai erdaraz egiten, inork behar hartu gabe, edo, guraso batzuk transmisiorik egin ez dutenak –Julian Retegi, Fernando Arretxe, kasu ospetsu batzuk jartzeagatik-, edo euskal dantzari, txistulari eta dultzainari artean berdin, erdaraz mintzatzeaz gain, izenak ere gaztelaniaz edo frantsesez aipatzen –*La Era, Valcarlos, El zortziko de Latz, El ingurutxo de Iribas, El Aurreku, El Agur Jaunak, El Gernikako...* Zorionez, alderantzizko kasu ondratsuak ere ezagutzen ditut, gutxiago baldin badira ere: euskara ederki ikasi duten etorkinak, edo beren seme-alabak, behintzat, D ereduan matrikulatzen dituztenak, e.a.

Bukatzeke, jendea animatu nahi dut konpromiso eta koherentzia handiagoak izan ditzan, eta denok pasa gaitela EUSKARA BAITIK EUSKARAZ BAIra.

Xanti Begiristain Iruñea

### Baztango Udaleko Ogasun Batzordea

Udal gestioa eta bereziki udal funtzionamendurako dauden gobernu organo ezberdinak eta horien betebeharrak ez dira maiz herritarren artean sobera ezagunak, gurean baztandarren artean.

Baztan bezalako udal-letan Ogasun (*Hacienda*) batzordeak eratzeko beharra ez du indarrean dagoen arautegiak bere baitan biltzen. Hala ere eta Udaleko diru kontuak garbiki agertzeko asmoz eta Virginia Aleman alkatea izaki joan den legegandian Baztanen batzorde hau hala nahita eratu zen (inoiz ez UPN eta bere lagunak agintean egon direnean). Batzorde honen egin behar nagusia diru aurrekontuaren gauzatze prozesua gainbegiratzea eta kontrolatzea da, hau da, egin beharreko ordainketak banan bana aztertzea, fakturaz faktura, kontuz kontu, egiaztagiriz egiaztagiri, baita udal aurrekontuaren bertze diru partiden egoera ere.

Gaur egun NaBaiko gobernu taldeak batzorde hau mantendu eta bultzatu egiten du, bertze modura egokia ez zelako izan, eta bertan udal oposizioan dagoen UPN taldeari eskatzen duen informazio eta dokumentazio guziaz helarazten dio, hamabortzean behin egiten den bilkuran agertzen diren bertze zalantza eta argibide osagarri guztiak eskainiz.

Baztango gestioan nahiz etorkizuneko proiektu baten diseinuan ezertan lagunduz, proposamen eta aldeko eki-

men bakar bat bera ere agertu gabe eta eragozpenak jarriz oposizio hipokrita soilik egiten duen UPN alderdiak agintzen duen udalerrietan antzeko batzordeak eratu behar harko zituen, Baztanen aspaldi egiten den gisara.

Baztango NaBa taldearentzat udal gestioa garbiki gauzatzea baztertu ezinezko konpromisoa da, arduraz bete beharrekoa. Kudeaketa arduratsua egitean zenbait erabaki hartu behar izan dugu, Baztango UPN taldeak arduragabeko alderdikeri doilorreraz jardunez udal informazioa eta dokumentazioa behar ez bezala fotokopiatu eta banatu ez dezan, honek ez baitu Baztanerako deus onik ekartzen. Eskatzen duten informazio eta dokumentazio guztia beti eskura izan behar dute, udal-letxean kontsultatu, aztertu eta ikertzeko aukera emanez, politikoki bultzatzen ez duten Ogasun Batzordearen barne edo hortik kanpo eta orain arte erakutsi ez duten zorrotasunez kontrol lan serio bezain zilegia bete dezaten.

Virginia Aleman  
Baztango alkatea  
Baztango NaBa Udalerriaren izenean

**Abertzale  
gehiengoari  
etekinak ateratzen  
hasi**

Beti da konplikatu gure herriko ereelitate politikoa analizatzea, eta are gehiago, une honetan, alderdi abertzaleak

## • IRAKURLEAK MINTZO •

elkarri muturka ari direnean.

Espainiako hauteskundeak zapore atsegin samar bat utzi zigutela zitudien (sozialisten garai-penean) eta bestetik Euskal Herrian «*patriótico-española*» izendatu dezakeguna, garaitua geratu zelako, ezker abertzaleak, EAJ-EAK eta IUEBk garbi gaina hartu baitzion.

Garaipen horretatik zein etekin politiko atera dezakegu? Egia esan, baxterez ez (horrelakoak gara euskaldunak) eta milaka oztopo ezin adostu gabiltzan bitartean etsai politikoak (zailtasunak zailtasun) burua jasotzen hasi.

Lerro honetatik jarraituz, irabazlearen eremutik egin behar da aurrera, gainerako Euskal Herriak ikus dezan, denentzako eta denen arteko politika egitea posible dela. Euskal Herria datorren urtean independente izatea ameskeria dela ikusiz, gaur irabazita duguna sendotu eta etorkizun baterako oinarriak sortu behar dira.

Gora Nafarroa!

**Asier Zabaleta**

### Agina (Lesaka)

Abuztuaren 13an, Abuin andreak, Lesakako jarduneko alkateak, uztailearen 30eko nire gutunari emandako erantzunarekin aho-zabalik

gelditu nintzen, baina hila labete berean, 20an, Alkate Jaunak eskutitz berdina kopia eta udal gobernuaren izenean prentsan argitaratu izanak ez du izenik. Abuin andreaki egindako erantzunean aipatu nuen asaldatzen nauten gauzen artean daudela norbait ni engainatzen saiatzea edo nire bitartez herritarrak engainatzen saiatzea. Eta zu, Erkizia jauna, ez zara argi mintzatu sinatu duzun eskutitzean, eta usate dut zergatia azaldu behar zenukeela.

Aski ongi dakizu, uztailearen 22an nirekin telefonoz egin zenuen solasaldi hartan gezurra erran zenidalako idatzi nuela nik gutuna, behar ziren baimen guztiak zenuela erran zenidan aldi hartan, alegia.

Horrez gain, ongi dakizu galdera simple eta zehatz batzuk egin nizkizula nire lehen idatzian. Erantzunik gabe uzten dituzun galderak dira. Zergatik?

Larria iruditu zitzaidan Abuin andreak bere artikuluan moztu zituzten pagoei arandoak deitu izana, baina ez nion jaramonik egin basoei buruz duen ezagutza zein den kontuan hartuz. Baina zuk baso ustiapeneko enpresa bateko kudeatzailea izanda, eta udal gobernuaren izenean eta zuhaitzak aurretiazko betekizunik gabe botata, berriaz pagoei arandoak deitu izana hagitz larria iruditzen zait, intentzio

txarrekoa eta lotsagabea, justifikaziorik gabekoa. Abuin andreak bezala ezin duzu gaiaren inguruko ezagutzarik ez duzula argudiatu. Udal gobernuan halako jokabideak ikusita Diputazioko sekuaio ere ez dela salbatzen iruditzen zait. Abuin andreaki erran nion erranen dizut zuri ere: gauza garrantzitsu bati buruz solasterakoan, in situ konprobatzea gustatzen zait niri, eta kasu honetan Aginan barna buelta bat eman behar zenuke idatzi aitzinetik. Aita Donostiaren omenez egindako eskulturaren egindako garbiketa bakarria pago eta urkiak botatzea izan da (ez arandoak, gaztainondoak eta urkiak), larrak eta oteak oraindik han segitzen dutelako. Eta egia errateko norbaitek garbitzeak ez lieke kalterik egingen.

Balore ekonomikoari dagokionean, erran, orain ez duela aunitz axola dagoeneko ez baitaude euren lekuan, eta orain baloratzeak ez du balio. 40-50 urte inguruko pago eta urkiak ziren, eta bakoitzak egoki ikusten duen bezala baloratuko ditu; nire ustez, berreskuratuezinak dira.

Ez dakit hemendik aitzinera zein autoritate-moralekin zigortuko dituzuen zuk eta zure taldeak zuhaitzak mozten hasten diren herritarrak, orain arte egin behar genituen tramite gogaikaririk egin gabe hasten direnean.

Edonola ere, argi da-

go jarduneko alkateak lehenbizi eta gero alkateak berak sinatutako eskutitzarekin ez didatela erantzun, eta lehenbizi idatzian egindako galdera sinpleei erantzunen dietela espero dut.

**Jose Luis Etxegarai**  
Lesakako alkate ohia  
Parlamentari ohia

### Arcelor-Mittalaren onartutako 2008ko kompetibitate plangintzaren balorazioa

ELAk ontzat ematen du enpresak aurkeztutako kompetibitate plangintza. Plangintza hau, sorburuan, industri proiektu bat da eta atzean plangintza soziala dago. Plangintza sozial honek 1950-51-52 urteetan jarioak diren eta bulegoetan edo produktzioan zuzenean lan egiten ez duten langileentzako erregulazio expedientea dakar eta 1948-49-50 eta 51 urteetan jario eta produktzioa edo mantenimenduan lan egin eta 1948 eta 49 urteetan jarioak eta bulegoetan lan egiten dutenentzako errelebo kontratua.

Uste dugu langileen asanblada orokorrak eta lantegiko sindikatu guztiek (LAB, ELA, UGT, CCOO, ESK eta Kua-droen Konfederazioak)

plangintza hau onartu eta gero, Arcelor-Mittal enpresaren behartuta da goela Lesaka eta inguruaren etorkizuna ziurtatzera.

ELArentzako aurreko gutzia ez da aterabiderik onena baina, gertatzen ahal zitzaien artean, okerrik txikiena da. Plangintza hau martxan jartzeak, hain globalizaturata dagoen merkatuan gure enpresak kompetibitatearen trena ez galtzea eraginen du.

ELAren iritzian, produktzioan, mantenimenduan eta bulegoetan emanen den lanpostuen galera, ordainduta geldituko da 2000. urtetik aitzinera plangintza honen eraginez enpresak etorkizuna izanen duelako.

Aunitzetan eskatu izan dugu enpresak inbertsioak burutzeko beharra eta langilegoa gaztetzearen garrantzia, zeren honela bakarrik ziurtatu baitaiteke enpresa eta eskualdearen etorkizuna. Beraz, plangintza honek hau burutzeko balio baldin bado, gure onarpena ezinbestekoa da.

Azkenik, erran nahi dugu, kompetibitate plangintza honen ondorioz kaltetutako langileen eskubideak (batez ere Legasan lan egiten dutenentzako errelebo kontratua) errespetatuak izan daitezken, ELAk ahalguztiak egingen dituela.

**ELA**  
**Arcelor Mittal SSC**

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

arropak · maindireak  
mantak · nordikoak  
toallak · kortinak  
alfonbrak  
**Goya**  
Altzate, 5 · Tel: 948 630 083

**sarobe**  
gozotegia okindegia  
pº de eztegara 25 bajo 34780 bera (navarra) t.948 630 899  
www.sarobe.net

## DIRULAGUNTZA

# 958.000 euroko laguntza onartu du Gobernuak proiektu turistikoentzako

Turismo elkarte, partzuergo turistiko eta udalek jasoko dute

## ttipi-ttapa

2007ko urriaren 1etik 2008ko irailaren 30era bitartean turismo indartzeko egin ziren hainbat jarduerentzako dirulaguntza onartu du Nafarroako Gobernuak. Nafarroa mailan laguntza eskatu duten 75 proiektu jasoko dute dirua, 958.000 euro guztira. Horietatik 328.000 euro elkarteentzako izanen dira. Gainerako 630.000 euroak entitate lokal eta partzuergo turistikoek bideratuko zaizkie.

Eskualdeko produktu, jatetxe, landa-etxe eta hotelak sartuak dauden elkarteak dira dirulaguntza jasoko duten batzuk, eta horiek dira ondoko taulan ageri direnak.

Elkarteak aurkeztutako proiektuen artean, aipatutako epean aurkeztu dituzten azoka, ekitaldiak, bisita gidatuak eta ikastaroak finantzatzeko.



## ELKARTEA

## LAGUNTZA

Lagun Artea Nafarroako Albergien Elkarte	1.126,66 €
Nafarroako Artisau Elikagaien Elkarte	42.888,91 €
Nafarroako Ostalaritza Enpresa Tikien Elkarte (ANAPEH)	2.842,51 €
Cederna Garalur Elkarte	29.241,66 €
Nafarroako Naturaren Interpretazio Zentroen Elkarte	12.489,25 €
Nafarroako Onddo eta Zizen Kofradia	17.653,08 €
Abelore Nafarroako NekazalTurismoen Elkarte	2.401,78 €
Hiruak Bat Landa-Etxeen Elkarte	780,58 €
Nafarroako Landa-Hotelen Elkarte	17.555,20 €
Erresumako Jatetxeak Elkarte	2.590,32 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>129.569,94 €</b>

## PARTZUERGO TURISTIKOA

## LAGUNTZA

Bertiz Partzuergo Turistikoa	37.911,60 €
Plazaola Partzuergo Turistikoa	65.238,71 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>103.150,31 €</b>

## UDALA

## LAGUNTZA

Lesakako Udalak	13.345,38 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.345,38 €</b>

## DIRULAGUNTZA

## 62.200 euro etorkinak integratzen laguntzeko

## ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuo Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuo Eledunaren Departamentuak 1,4 milioi euro onartu ditu Nafarroako 33 entitaterentzat. Laguntza hori etorkinei integratzen laguntzeko da eta gizarte zerbitzuek jasoko dute. Eskualdeko mankomunitate eta udaletara 62.222,21 euro bideratuko dira: Baztango Udalak 15.209,87 euro jasoko ditu, eta horietatik 4.163,23 euro sentsibilizazio kanpainetarako izanen dira. Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateak 13.385,28 euro jasoko ditu, eta horietatik 2.642,04 sentsibilizazio kanpainetarako izanen dira, bertze 1.638,58 euro harrerarako. Leitzako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearentzat 12.118,29 euro izanen dira. Kopuru horretatik zati bat, 4.974 euro, parte-hartzea bultzatzeko izanen da. Bortzietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 21.508,77 euro jasoko ditu. Haur eta gazte etorkinei laguntzeko 4.200 izanen ditu, gizarte zerbitzuak eskaintzeko 10.709 euro, sentsibilizazio kanpainetarako 4.299,77 euro, emakumeen alorrerako 150 euro eta harrerako 12.076,83 euro.

Instalazio elektrikoak  
Muntaketak  
Mantentze industriala  
Sare elektrikoaren analisia

**IngeBrand**

Fernando Descalzo Echeverria  
Elektrikari-Ingeniaria

Latsaga, 22 - 3.Esk. • **IGANTZI** • 948 637 607 • 687 871 444  
fernando.descalzo@telefonica.net

**J.RAMOS**  
zolak akutxilatatu eta  
barnizatzen dittut

Sakelekoa: 637 836 023 • **LESAKA**



**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostataua  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Inarte karkika  
**ELIZONDO**

Tel: 948 581 807 • 948 581 853



**BERA**

## Iaz baino 164 bisitari guttiago pasatu dira aurtengo udan turismo bulegotik

Joan den urteko ekainean eta uztailean 1.163 lagun pasatu ziren, eta aurten 999

**ttipi-ttapa**

Bazter aunitzetan egin du beheiti turismoak, eta hori krisiari leporatu izan zaio. Ez dakigu Beran hori izan den arrazoa, baina kontua da iazko datuekin konparatuz, turismoak beheiti egin duela. Turismo bulegotik pasatu diren bisitariak, behinik behin, joan den urtean baino guttiago izan dira. Lerro hauek idazterakoan oraindik ez genuen abuztuko daturik, baina ekaineko eta uztaileko datuek beheirantzko joera erakusten dute.

Udaletxeko turismo arduradunak utzitako datuen arabera, joan den urtean, ekainean 284 lagun pasatu ziren turismo bulegotik, eta 879 turista uztailean. Aurten, berriz, ekainean 183 lagun pasatu dira (iaz baino 101 guttiago), eta 816 ekainean (iaz baino 59 guttiago). Orotara, beraz, 164 bisitari guttiagok jo dute turismo bulegora. Dena den, aipatzekoa da, joan den urtean ekainean aste bat lehenago ireki zela bulegoa.

Aurtengo abuztuko datuak falta diren arren, turismo arduradunaren

iritziz, iaz baino jende guttiago pasatu da.

Bisitarien jatorriari dagokionean, bai joan den urtean eta bai aurten ere, batez ere Euskal Herriko jendea etorri da (Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroatik ba-

tik bat), eta horien ondotik Katalunia, Madril eta Valentziako turistek bisitatu dute batez ere herria.

**Kolektorea konpontzen**

Hirurteko Planaren bar-

ne sartuak ziren herriko hainbat konponketa lanek aitzinera segitzen dute. Apiril hondarrean, bideetan eta saneamendu sarean obrak hasi zituzten. Orain, berriz, ur zikinen kolektorea moldatzeko lanak

hasi dituzte. Arian enpresa da kolektorea konpontzen ari dena.

**Musika Eskolan aurrematrikulazioa egiteko epea zabalik**

Isidoro Udala Musika Eskolan aurrematrikulazioa egiteko epea zabalik dago. Astelehenan, irailak 1, ireki zuten eta irailaren 15era arte izanen da aukera. Aurrematrikulazioa egiteko inprimakia eta tasak web orrian daude ([www.berakoudala.net/udala/instalazioak/musikaeskola](http://www.berakoudala.net/udala/instalazioak/musikaeskola)) eta aurkezteko musika eskolara joan behar da, 9:00etatik 13:00etara bitarte. Dena den, aipatu, aurreinskripzioa ekainean egin zutenek lehentasuna edukiko dutela. Ikasturtea, berriz, irailaren 18an hasiko da.

**Dirulaguntza Lagun Handiak Elkartearentzat**

Aurten egitekoak diren ekintzetarako laguntzak onartu ditu Nafarroako Gobernuak adinekoko eta erretiratuaren elkartentzat, eta horren bidez, Lagun Handiak Elkarteak 1.000 euro jasoko ditu.



ARGAZKIA: XABI ERKIZIA

**'Bertze musiken jaialdia' irailaren 13tik 20ra**

Badator bederatzigarren Ertz jaialdia, «garrantzirik ematen ez zaion bertze musika»ren jaialdia, alegia. Jaialdia Beran hasi bazen ere, aurten hirugarrenez Donostiako Arteleku arte garaikideko zentruan ere hainbat emanaldi eskainiko dira, eta edizio honetan estreinakoz, Hazparneko Ttattola gaztetxean ere bai. Inprobisazioa bultzatu nahian, izaera eta jatorri ezberdinetako artistak gonbidatu dituzte bertze urte batez: Erresuma Batua, Frantzia, Euskal Herria... Irailaren 13an emanen zaio hasiera: Berako Kultur Etxean AMM, Charles Hayward, XEDH eta Stéphane Garin & Sylvestre Gobartek kontzertua eskainiko dute 20:00etatik aitzinera. Biharamunean, hilak 14, kontzertuak ez ezik film bat ere izanen da ikusgai, 17:00etan hasita. Hala, Jean-Luc Guionnet, Ennio Como Violeta (Tanto monta monta tanto) eta Bizarra (Bera eta Elgoibarko bikotea) taldeen kontzertuen tartean Sonar Ciudades filma ikusteko modua izanen da. Irailaren 15ean, 16an eta 18an Donostiako Artelekuk hartuko du Ertz jaialdiaren lekukoa eta 20an Hazparneren txanda izanen da. Argazkian ageri dena AMM da.

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
sagardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
Tel: 948 625 474

**Xirgil**  
Altzate 1 · BERA  
Tfn: 948 631 462

**BERA**  
Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak  
**GOI EKO** Industria Garbitasun Produktuak  
Tel: 948 625 597 • Zain, 42 A • BERA

## LESAKA

# Bittiriako bestak irailaren 12tik 14ra ospatuko dira

Borrokan eta Gatillazo taldeek kontzertua emanen dute ortziralean

## Aitor AROTZENA

Azken urteetako ohiturari zintzo eutsiz, irail-leko bigarren aste hon-darrerako besta egitarau polita plantatu dute aurten ere Bittiria auzoan.

Txupinazoa ortziralean, irailaren 12an, 21:00etan botako dute, baina ordubete lehenago bi txapelketa jokatu-ko dira: patata tortilla txapelketa eta Bittiria auzoko I. trikitixa txapelketa. Txupinazoaren ondotik, 21:30ean Txootx!! merienda-afaria eginen da, txapelketako patata tortilla aprobetxatuz. 23:00etan rock kontzertua eskainiko dute Borrokan eta Gatillazo taldeek.

Larunbatean, irailaren 13an, 10:00etan di- nian izanen da txistulariekin. 12:00etan herri kirolak izanen dira, nesken arteko III. Begibana txapelketa, hain zuzen. Izenak laburbiltzen duen bezala, herriko Be- ti Gazteko neskekin ba- tera, Oiartzungo Girizia, Gasteizko Badaiotz eta Sakanako neskek ariko dira kokorak, zaku las-

terketa, txingak eta ko- rrika biltzen dituen pro- bura konbinatuan eta so- katiran. 14:30ean auzo bazkaria izanen da eta hori animatzen, azken urteotan huts egiten ez duen Mañukortarekin batera, Amets Arzallus eta Xabi Terreros ber- tsolariak ariko dira. 19:30ean berbena ha- siko da Gaubela taldea- rekin. Aipatzekoa da egun osoan txaranga ere ibiliko dela.

Igandean, irailaren 14an, izanen dira azken ospakizunak. 11:00etan haur jokoak izanen dira Eltzeta plazan eta leku berean, ordubete be- randuago kros herrikoia. 17:30ean ipuin kontala- ria izanen da Bittiriako plazan eta bestak akau- tzeko, 18:30ean trikiti- xa jaialdia.

## Jabier Muguruzaren kontzertua irailaren 19an

Irailaren 19an, ortzi- ralarekin, kontzertua es- kainiko du Jabier Mu- guruzak Onin erreka- ren gainean, 22:00etan.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Beti Gazte mendi taldea Pirinioetan

Abuztuaren 2 eta 3an, Beti Gazteko mendizale taldeak Pirinioetara irteera antolatu zuen, azken 10 urteotan bezala. Guztira 24 mendizalek parte hartu zuten. Ibilaldia Espainia eta Frantziatik igaro zen, Ordesako (Espainia) eta Pirinioetako parke nazionala (Frantzia) gurutzatuz. Abuztuaren 2an Punta de las Olasera (3.002 metro) igo ziren Añisclo lepotik. Abuztuaren 3an bi talde osatu ziren. Lehenbizikoa (argazkian) Gabietouko gailurrera igo zen (3.034m). Bertze taldeak Escuzanako gaina igo zuen (2.847m).

Bortziritako Euskalte- giak (IKA) antolatu du emanaldia.

## San Fermin elkarteari laguntza

2008ko ekitaldieta- rako dirulaguntzak eman dizkie Nafarroa- ko Gobernuak Nafarroa- ko adinekoen eta erre- tiratuen elkartei. San Fermin Elkarteak 4.524 euro jasoko ditu.

## Futbol denboraldia

Beti Gazteko futbol talde nagusiak irailaren 14an ekinen dio den- boraldi berriari, Masteg- gin Muniberen kontra- ko partidarekin. Kotte lantzi izanen da entre- natzaile. Jubenilek as- teburu berean jokatu- ko dute lehen partida.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

## Beatriz Gartziarena da udal kiroldegiko milagarren bazkidea

Beatriz Gartziarena Goienetxe 7 urteko lesakarra da udal kiroldegiko milagarren bazkidea. Abuz- tuaren 8an egin zen Bazkidearen Egunean oparia jaso zuen. Argazkian, ama eta ahizparen artean ageri da. Ireki zenetik urte erdia pasatu denean, 1.200 bazkide inguru ditu kiroldegia.

**IRU BIDE**  
Erregegia - Asador

Biturana, 3. Lesaka  
Tel: 948 637 127

**GOJZ-ALDE**

JANARDENDA  
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

**BEKO**

LOREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa - LESAKA  
Tfnoa: 948 637 826

**XATURETXEA**

JATETXEA

T: 948 637 260 • LESAKA

MERTZERIA

Leñe

LENTZERIA

Tel: 948 627 514  
Behoko Plaza, 10 - LESAKA

## ETXALAR

### 400 lagunetik goiti bildu zituen, ezustean, Ara Malikian biolin joleak

Inork espero ez zuen arrakasta izan zuen herriko elizan eskaini zuen kontzertuak

#### Joseba eta Nerea

Etxalarren guttitan gertatzen dena gertatu zen abuztuaren 8an. Elizako aldarea, musikari on bat eta biolin bat. Nahikoak izan ziren hiru elementu horiek ordu batzuez herria hankaz goituzteko. Donostiako Musika Hamabortzaldiaren barrenean, Ara Malikian Libanoko biolin jotzaile ezagunak (gutako guttik ezagutzen badugu ere, mundu mailako erreferente handia da gizon hau) sekulako kontzertua eskaini zuen. Eliza aspaldiko urteetan ez da hainbertze bete. Jendeak ilara egin behar izan zuen sartzeko. Apaiza bera ere harrিতua zegoen. Bekolanda auzoa beteta, Larrabururaino pilatu ziren autoak bide bazterrean. 20:00etan hasita, ordu bat eta erdiko kontzertua eskaini zuen Ara Malikianek bere taldearekin batera. Amaia Zubiriak egin zi-

tuen aurkezpen lanak eta abesti bat ere eskaini zuen. Kontzertua ikusgarria izan zen. Biolinaz aurriz ulertzen ez dutenak ere harrিতuta gelditu ziren. Bertara bildutako guztiak aho-zabalik utzi zituen Libanoko musikariak. Kontzertua eskaini, eta etorri bezala joan zen. Udaletxetik balorazio positiboa egin dute, «*horrelako ekitaldiak onak baitira herriarentzat*».

#### Ehiza-postuen enkantea larunbatean

Irailaren 6an, 12:00etan, eginen da aurten go ehiza-postuen enkantea. Urtero bezala, Ihar-mendi gaineko postuak subastan aterako dira, dirua jokatuz, saiorik hoberena egiten dutenentzat. Hau izanen da lehen enkantea, ondotik etorriko dira sesteoak eta bigarren enkantea. 22 postu aterako dira hasieran, urtero bezala.



Kontzertuak jendearen ikusmina piztu zuen.

ARGAZKIA: GOIKO



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

#### Izokinak pasatzeko eskailerak presan

Duela urte batzuk beheko zentralaren parean dagoen presan izokinenzako eskailerak egin zituen Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentuko Ehiza eta Arrantza sailak, Tximista erreka izokin erreka bihurtzeko asmoz. Honekin lotuta, egun hauetan Antsolokueta auzoko presan bertze hainbat obra egiten ari dira. Hiru proposamen egin zizkieten Udalarri Gobernutik: lehenbizikoa, presa botatzea; bigarrena, presaren altuera erdira jaustea, eta hirugarrena, orain egiten ari direna, hau da, izokinak pasatzeko eskailerak egitea. Honela, presak bere itxura mantenduko du eta errotara joaki den kanala mantenduko da. Hormigoizko estruktura harriz estaliko dituzte, ahalik eta disimulatuen gelditzeko.

**USOA**  
nekazari kooperatiba  
ganaduentzat pentsurik egokiena  
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

**Javier Manterola**  
Tecniko instalatzailea  
iturgintza • gasa kalafakzioa  
Tfnoa: 629449602 • BERA

**arkilanak**  
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA  
ETXEBIZITZA PROIEKTOAK  
URBANIZAZIO PROIEKTOAK  
ETXE BERRITZEAK  
NABEAK  
KONSULTAK  
INFOGRAFIA: 3D  
ELIZONDO • Santiago, 54 behe • 948 581 931  
BERA • Eztegara, 8 behe • 948 625 232

**PAGOLA**  
EMBUTIDOS  
artesanos desde 1940  
Alzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

## ARANTZA

# Bestak eta Arantza Rock jaialdia bikain iragan dira

Arantza Rock egunean giro paregabea izan zen

## Nerea ALTZURI

(...) Joan zen uda eta heldu da negua (...). Hala dio kanta bateko zati batek. Oraindik urtaroa berez ez da akautu eta neguari ongi etorria egiteko puska gelditzen da. Nolanahiere, abuztua joan da eta aurtengo ikasurteari ekiteko prest dira eskolako maisu eta ikasleak. Guk, halere, ikasurtearen eta joan den hilabetearen Udaletik jasotako informazioaren berri hurrengoan ematen dugu, eta pasa den hilabetearen kontuak hartuko ditugu, berteak bertze, Amabirjin bestak eta Arantza Rock. Ale honean, hitzekin luzatu beharrean, irudiek erran nahi dutena adierazgarria izatea espero dugu. Argazki guztiak ezinezkoa da jartzea. Amabirjin bestetako batzuk aukeratu ditugu, ongi probexitu ditugulako besta egunak: antolaketa ona eta egitarau aberatsa izan dira, berrikuntzak tarteko.

## TXUPINAZOA EKAITZA ELKARTEAK

Jende multzo bat plazan zela, Ekaitza Elkarreko presidentea den Dabit Iturriak elkarrean izenean txupinazoa bota zuen, gure artean ez daudenak oroitu. Brindisa, luntxa eta dantzak izan ziren bezperan, tortilla lehiaketaren ondoren.

## DANTZA SAIOAK

Amabirjin Egunean dantza saioa izan zen. Horrez gain, bezperan tiakien taldeak eta bihar munean helduenek saioak egin zituzten.

## BERRIKUNTZA ANDANA

Hainbat berrikuntza izan dira aurrean, eta horrela, egunez eta gauez egitarauak beteak izan dira: herri eta haurren bazkariak, bingoa eta dantza lehiaketa, herri kirol saioa, pilota partidak, mus txapelketa, buru haundiak, haurren tailerrak, puzgarriak, bertso saioa, Kuxkuxtu fanfa-



ARGAZKIAK: NEREA ALTZURI ETA TTIPI-TTAPA

Argazkiok bestetako momentu ederren adibide batzuk baino ez dira.

rea, suzko zezena, dantzaldiak...

## ARANTZA ROCK

Abuztuaren 23an Gazte Asanbladak antolatutako Arantza Rock arrakastatsua izan zen. Egun osoko egitaraua

prestau zuten gazteek, herri kirol saioa eguerdian, aizkora apustua, zikiro jatea Izadi txaragaren laguntzaz... Ondoren poteoa egin zuten herrian barna eta arratsean kontzertuak eta dantzaldia izan ziren plazan.

Tartean, berrikuntza batzuk ere sartu zituzten gazteek, adibidez, Gazte Tonbola. Gazte Tonbola, kamisetak eta giro ezin hobea. Heldu den urtean ere horrelako egun bat antolatzea espero dugu.

**ERROTAZAR**  
harategia

Bertako produktak

Eztegara, 3 · BERA  
Tel/Faxa: 948 630 088

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Diru-laguntza ezberdinak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Kontabilitateak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- IVA eta IRPF
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Errenta aitortpenak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

**Ituzia**  
Larrazteko D Jardineria

HIDROEREINTZA  
kimaketak  
zerrakurak  
mantenimendua

HIDROSIEMBRA  
podas  
cierres  
mantenimienta

Zuhaitzak arboles  
Zuhaitzak arbutus

FERMIN MARITORENA LARRALDEA  
666 407 214  
948 631 199  
Hegazte karrak, 23 · 31780 BERA (Nafarroa)



**elier**  
escuelaimagenpersonal ®

ikaslearen zerbitzura dagoen  
erreminta

**elier**® eskola proiektu bezala jaio da

Eskola kontzeptu bezala, eskola esperimentazio foro bezala, eskola mugimendu bezala, eskola interesak partekatzen dituen giza talde bezala, eta bereziki, eskola hezkuntza zentro bezala.

Irudi pertsonalaren munduan esperientzia handiko profesionalak garen aldetik, irakaskuntzaren kalitatea hobetu daitekeela uste dugu, eta horretarako, ez dago oinarrietatik hastea bezalakorik.

Gure hezkuntza-programa, programa ofizialak dioenera atxikitzen da:

- Dekoraziozko estetika pertsonala [Erdi mailako zikloa]
- Estetika integrala [goi mailako zikloa]
- Ile-apainketa [erdi mailako zikloa]

Gure lanbide-etorkizunaren aurrean jarrera eta ikuskera berria eskaintzen dugu.

Elier-en, talde lanaren eta ikaslearen garapen pertsonalaren aldeko apustua egiten dugu, diziplina anitzeko proiektuei aurre eginez. Mota honetako ikasketa eta heziketa historikoki sortzaileagoak diren bertze diziplina batzuetan ikus dezakegu (arkitektura eta diseinua nagusiki). Diziplina hauetan lanbidearen oinarriak ikasi eta ikaslearen gaitasunak eta jarrerak suspertzen dira.

Gure helburua ikasleak trebatu eta bideratzea da. Horrela, proiektu profesionalen beharretara zein lan merkatuaren beharretara egokitzeko gai izanen dira.

Teknika berrienetan jarria dagoen profesional taldea dugu lan taldean, eta baita kanpoko laguntzaileak ere, espezializazio-ikastaroen bitartez egiten dizkiguten ekarpenekin gure irakaskuntzaren kalitatez hobetzen laguntzen digutenak.

Elier ikaslearen zerbitzura dagoen erreminta da. Gure esperientzia profesionala, gure azpiegiturak eta gure ilusioa zure eskura jartzen dugu, etorkizunerako prestatuak izanen diren profesionalak formatzeko.



**MATRIKULA ZABALIK**  
**943 013 627**  
www.elier.eu | elier@elier.eu  
**ADUANA 27 IRUN**

## SUNBILLA

# Giro ederrean pasa dira aurtengo Santiburtzio bestak

Lehen aldiz egin den herri krosa arrakastatsua izan da

## Jaione OTXANDORENA

Abuztuaren 9an herriko gazteen arteko herri kirol saioek eta gau hortan bertan izandako Jalisko Banden gaupasarekin eman zitzaizen hasiera aurtengo bestei, nahiz eta hasiera ofiziala abuztuaren 10ean botatako txupinazoarekin egin zen. Aurten lehenengo txupinazoa botatzeko ohorea duela 25 urtetik herriko albintea den Juanjo Ibarrari eman zitzaion, 25 urte hauetan herrian egin duen lana eskertzeko. Bezperan zein Santiburtzio Egunean herriko dantzari taldeak saio politikak eskaini zituen bertze urte batez. Herri kirol saioak ere bere garrantzia izan du te aurten ere eta aitzurrarekin egurra mozteko modalitate berri bat ere ikusteko aukera izan genuen herriko zenbait mutil gazteren eskutik. Bestek irau zuten sei egunetan lehiaketa franko ikusi eta horietan parte

hartzeko aukera izan genuen.

Dagoeneko ohitura dira bestetan, mus txapelketa, aitzur eta zartain-jaurtiketa, toka txapelketa eta plater-tiroketa. Mus txapelketan Paxkual eta Tiburtzio *Xibola* izan ziren txapeldun, aitzur-jaurtiketa Daniel Bertizek irabazi zuen (bortzgarren urtez jarraian, -urte guzian aritzen ote da entrenatzen?-), zartain-jaurtiketa Edurne Urroz nagusitu zen eta toka txapelketan Iker Espelosinnek lortu zuen lehen saria. Olegiko parajea jokatzen den plater-tiroketa Daniel Bertizek irabazi zuen eta Fernando Irazoki eta Aitor Apeztegiak lortu zuten bigarren eta hirugarren postua.

Lehen aldiz egin zen herri krosak izugarriko arrakasta izan zuen, herriko jendeaz gain, kanpoko jende ugari ere etorri baitzen. Ttikienetan Koldo Herrerak irabazi zuen; bigarren taldean



ARGAZKIAK: JAIONE OTXANDORENA

Era guztietako ekitaldiekin gozatzeko aukera izan dugu bestetan.

Aritz Bereau nagusitu zen; hirugarrenean Eneko Herrera; laugarrenean Fermin Estanga, eta helduetan Imanol Molinek lortu zuen lehen postua. Jon Maritxalar eta Aitor Apeztegia sunbildarrak bigarren eta hirugarren helmugaratu ziren.

Eguraldi txarraren ondorioz azkeneko egune-

ko herri afaria eta ondorengo dantzaldia frontoian egin behar izan ziren. 200 lagun inguru bildu ziren herri afarian beste amaiera emateko.

Ezin ukatu ekitaldiz betetako sei egunez gozatzeko aukera izan gela eta guztietan irabazi eta hartu duten guztiei zorionak

eman beharrean gauden. Baina horren guztia ginetik, egun horiek antolatzen pasatzen duen jendeari eskerrik asko: Udala, Ulibeltzak Elkarte, Antrotokiko Gazteak, Antzakaitz Kultur Taldea eta era batean edo bertean laguntzen duten herritar eta kanpoko guztiak.

## APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**



**anaiak s**  
**apezetxea**

Idoietza, 71 - 1ª A - 31754 GOIZUETA - Nafarroa  
Tels: 650 20 16 27 - 699 63 24 80  
[www.apezetxeaanaiak.com](http://www.apezetxeaanaiak.com) - [excavaciones@apezetxeaanaiak.com](mailto:excavaciones@apezetxeaanaiak.com)

## EHIZA

# Ortzegun honetan hasiko da basurde eta orkatzen ehiza sasoi

Migratzaileen ehiza denboraldia urriaren 1ean hasiko da

### ttipi-ttapa

Ortzegun honetan, irailak 4, hasiko da basurde eta orkatzen ehizatze denboraldia. Basurdeak 2009ko otsailaren 28a arte ehizatu ahal izanen dira, ortzegun, larunbat, igande eta jaiegunetan, beti ere, guttienez lau ehiztarik parte hartzen badute. Orkatzen harrapatze baimena abenduaren 28an bukatuko da. Ehiztariak berriti bakoitzean zehaztutako kupoak errespetatu beharko dituzte. Aipatu, Ehiza Antolatze Planek (POC) baimendutako eta ehizaldian ez harrapatutako animaliak zelatan ehizatu ahal izanen direla 2009ko maiatzaren eta ekainean.

Oreinak eta adarbalak horretarako baimendutako lekuetan bakarrik ehizatu ahal izanen dira, eta hauek ere ortzegun, larunbat, igande eta jaiegunetan. Urriaren 12tik 2009ko urtarrilaren 18ra bitarte ehizaldietan, eta irailaren 14tik



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Abuztuaren 15az geroztik ehiztariak ehizean dabilta.

urriaren 5era zelatan.

Horrez gain, ortzegun honetatik aitzinera, azeriak ehizatze baimena ere zabalik egonen da, ortzegun, larunbat, igande eta jaiegunetan. Heldu den urteko otsailaren 28a bukatuko da sasoi. Gordelekuetan itxaronez ehizatze modalitatea, berriz, azaroaren 1ean zabalduko da.

Bertzetik, urriaren 1ean postu finkotik egin daitekeen migratzaileen ehiza denboraldia hasi-

ko da, eta pagauso, haitzuso eta txoloma, usapal edo ttoritoil turkiar eta birigarro, garraztarro, durdula eta birigarro tikiak ehizatu ahal izanen dira. Ehiza postu bakoitzean hiru lagun egoten ahal izanen dira gehienez, bakoitza eskopeta banarekin. Abenduaren 8a arte luzatuko da baimena.

Oilagorren ehiza, zakkurrekin eta basoetan, urriaren 12an hasiko da eta urtarrilaren 31 arte iraunen du, eguneko hi-

ru aleko mugarekin.

Gainerakoan, azaroaren 1etik urtarrilaren 25era iraunen duen debekualdi orokorraren barne, eper gorriak eta erbiak igandetan eta barruti bakoitzak ezarritako jaiegunetan ehizatu ahal izanen dira; untxia ortzegun, igande eta jaiegunetan; uretakoak, azeria, usoak eta birigarroak, ortzegun, larunbat, igande eta jaiegunetan eta faisaiak igande eta jaiegunetan.

## FLASH

### Mendialdeko usadioak ezagutzeko proposamenak turistentzat

Gure lanbide eta usadioetan barrena, bidez bidez izenarekin Cederena Garalur Elkarteak Nafarroako Mendialdeko kultura eta ohiko jarduerak ezagutzeko egitasmo berria lantzen ari da udan eta udazkenean. Guztira sei txango proposatzen dituzte: Erronkari Ibarrean, Iratiko Pirinioetan, Nafarroako Pirinioaurrean, Aralar mendietan eta Ultzama Ibarrean, Bertizko Parke Naturalean eta inguruan eta Baztanen eta Urdazubi aldean. Azken bi horiek, hain zuzen, eskualdetik pasatzen dira. Lehenbikoak Zubietako errota, Bertizko Natur Parkea, Elizondoko Jorge Oteiza Museo Etnografikoa, Bertizko basoa, Donamariako Jauregia-Dorrea eta Leurtzako enbaltseak ezagutzeko proposatzen du; bigarrenak, berriz, forja lantzen duen Arizkongo Zapata eskulangilea eta Zugarmurdi zein Urdazubiko leizeak bisitatzeko proposatzen du, eta astia izanez gero, Elizondo eta Sara ikusteko gomen datzen du. Sei txangoen inguruko xehetasunak emanez 3.000 liburuxka argitaratu dituzte.



## ARMAIRU ALTZARIAK

Rosa Seminario 13  
DONEZTEBE  
Tel.: 948 450 400

**PARETA-ARMAIRUAK ETA BAINUETAN ESKAINTZA BEREZIAK**

# NURIA

estetika zerbitzuak

Aurpegiko larruazal garbiketa • Makillajea  
 Aurpegiko tratamenduak • Bekain tindaketa  
 Manikura eta pedikura • Gorputz peeling-a  
 Betileen tindaketa eta permanentea  
 Depilazio hotzak eta beroak  
 Astelehenetik larunbatera irekia

Zazpigarutze 1-2.c, DONEZTEBE  
tel. 667 041 741

## ITUREN

# Hiru ikasle berrirekin ortziral honetan hasiko dute ikasturtea eskolan

Bertzalde, bortz ikasle joanen dira Doneztebeko Mendaur Institutura

## Arkaitz MINDEGIA

Aunitzen kasuan bezala, ikasle eta irakasleak ere oporrak akautze-ar dituzte. Udako aisialdiak utzi eta buru-belarri ikasketetara bueltatuko dira ortziral honetan, irailak 5.

Aurten hiru izanen dira ikasturte berria hasiko duten hiru urteko haurrak: Malen Etxekolonea (Zubieta), Haritz Aragon (Zubieta) eta Xabier Mariezkurrena (Aurtitz).

Doneztebeko Mendaur Institutura, berriz, bortz gazte joanen dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) egiteara: Izaro Ariztegia (Ituren), Olaia Loiarte (Zubieta), Julen Aranburu (Aurtitz), Maialen Elizalde (Zubieta) eta Beñat Etxekolonea (Zubieta).

## Maika Ariztegi eta Ander Erasun sasoiari

Herriko kirolariak bikain ibili dira uda honetan. Maika Ariztegik, erraterako, Euskal Herriko

Lokotx Biltze Txapelketa irabazi zuen Baliarriaren abuztuaren 15ean. 7 minutu eta 21 segundo behar izan zituen 50 lokotx biltzeko. Denbora

honekin gainera, Nafarroako errekorra hobetu zuen.

Bertzetik, berriz, erakusketa erakusketa ibiltzeaz gain, Ander era-

sunek Euskal Herriko III. Mailako Aizkora Txapelketa finalerako txartela lortu du. Lehen kanporaketan lehenbizikoa gelditu zen, 8 minutu eta

50 segundotan moztu baitzituen lau kanaerdi-koak.

Kanporaketa Gorritin egin zen abuztuaren 23an eta berarekin batera, Asier Pellejero sailkatu zen finalerako. Bertze bi kanporaketa jokatu ondoren, finala Altsasun jokatu da urriaren 19an.

## Joaldunen Eguna irailaren 13an

Aurtengo Joaldunen Eguna berezia izanen da, 25 urte beteko baititu. Irailaren 13an izanen da ospakizuna eta egun osoko egitaraua antolatuko dute Ibintza Kultur Taldeak, Joaldunen Elkartek eta Inauterietako Batzordeak. Xehetasunak 4. eta 5. orrialdetan aurkituko dituzue, baina, aipatu, bazkarirako txartelak hartzeko azken eguna ortzegun hau, irailak 4, izanen dela. Bazkarira baserretarrez jauntzita joateko ere eskatu dute antolatzaileek.



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Trikitixa eta pandereta ikastaroa

Ikasketekin batera hainbat ikastaro martxan jarriko dira gure eskualdean. Horien artean, trikitixa eta panderetarenak. Ituren, Oronoz-Mugairi eta Sunbillan, bertze urteetan bezala, trikitixa eta pandereta klaseak emanen ditu Mendaur Trikitixa Eskolak (Ainara Mindegia). Ikasturtea urritik ekainera izanen da, eta izena eman edo informazioa nahi duenak irailaren 19a baino lehen egin beharko du 646 298568 telefonora deituz.

## TTIPI-TTAPA TELEBISTA

### 32. kanalean ikusten da orain Donezteben eta inguruan

*Antena partikularra dutenek telebista bersintonizatu beharko dute eta, pazientzia pixka batekin, telebista aparatuak bilatuko ditu etxeko antenatik hartzen diren frekuentziak.*

*Antena kolektiboa duten etxeetan, ordea, nahitaezkoa izanen da anplifikadore berria jartzea. Horretarako, antena instalatzaileari deitu beharko zaio.*

*Argibide gehiago behar izanez gero, deitu 948 63 54 58 telefonora.*



# 08-09

# ikasturtea

F/O/T/O/K/O/P

Azken belaunaldiko makina digital berriak

- Inprimaketak, zuri beltzean eta koloretan (katalogoak, prezioen zerrendak, bisita txartelak...)
- Planoen inprimaketak, eskaneatzeak, tamaina haunditzeak eta murrizteak egiteko

**Enpresendako aurrekontuak**

Foruen karrika, 4 • IRUN  
Tel. / Faxa: 943 63 22 11



**ENGLISH ACADEMY**

2008 / 2009 kurtsorako matrikulazio epea zabalik, plaza mugatuak

**IKASTURTE HASIERA: Irailak 15**

University of Cambridgeko azterketara aurkezteko prestakuntza.  
**ITZULPEN LANAK EGITEN DIRA**

Elizagibela, 7 behea • 31740 DONEZTEBE  
Tel.: 626 908 076 • [angieacademy@hotmail.com](mailto:angieacademy@hotmail.com)

**AXULAR**

Fotokopiak, faxa, enkuadernazioak, plastifikazioak, aldizkariak, prentsa, tabakoa eta testu liburuak ekartzen dira enkarguz



Santiago • ELIZONDO  
Tel.: 948 581 507



Tel. eta Faxa: 948 450 289  
e-posta: [costiz@teleline.es](mailto:costiz@teleline.es)  
Parrokia, 17 • DONEZTEBE

Eskola liburuak eta materiala erosterakoan 3 USB eta eskola material ezberdinen zozketan parte hartuko duzu.

Zozketa eguna: **irailaren 30ean**

**Ikasturte honetan, beti bezala, Ostiz Etxea zurekin, laguntza eskaintzen**

**SPARK JULIE'S ENGLISH ACADEMY CENTER**  
Tfnoa: 948 580 175 • 636 858 850 ELIZONDO

2008-2009 ikasturtea Irailaren 13a arte **MATRIKULAZIO EPEA IREKIA**

- MINTZA KLASEAK
- TURISMOARI ZUZENDUTAKO KLASEAK
- CAMBRIDGE-KO AZTERKETA OFIZIALEKO PRESTAKETA: KET, PET, FIRST, ETAP
- BUSINESS
- MAILA GUZTIAK, BAI HAURRENTZAT BAI HELDUENTZAT
- HELDUENTZAT HASIERA MAILA
- KLASE PARTIKULARRAK GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

*kalitatezko klaseak prezio hoberean!*



**ELKAR**  
liburu-denda

testu liburuak  
eskolako materiala

aldizkariak eta prentsa

Eztegara, 18 • Tel.: 948 630 691 • BERA

<p><b>TOKI-ONA KIROLDEGIA</b></p> <p>2008-09 Kirol jardueren programa. Apunta zaituzte!</p> <p>Izen-ematea: irailaren 15etik 20ra</p> <p>Irailak 10 inguruan etxetara udal kirol programa guztiarekin eskuprograma banatuko da.</p>	   <p>Informazioa: 948 630 215 <a href="mailto:bera@urdisl.com">bera@urdisl.com</a></p>	<p><b>LESAKAKO KIROLDEGIA</b></p> <p>2008-09 Kirol jardueren programa. Apunta zaituzte!</p> <p>Izen-ematea: irailaren 15etik aintzinerara</p> <p>Irailak 10 inguruan etxetara udal kirol programa guztiarekin eskuprograma banatuko da.</p>	   <p>Informazioa: 948 637 400 <a href="mailto:lesaka@urdisl.com">lesaka@urdisl.com</a></p>
---	--	---	--

**LEGARRA**

**ESKOLAKO MATERIALA PRENTSA**



Tel. / Faxa: 948 637 030  
Albistur, 9  
LESAKA

## OITZ

# Amabirjin bestak irailaren 5etik 8ra

Igandean Jexux Agite borts metroko altueran kanako egurra mozten ahaleginduko da

## Ortzirala 5

**20:00etan** altxaferoa beste hasiera emateko. **Ondotik** Doneztebeko txistulariak herrian barrena ibiliko dira. **21:00etatik aitzinera** Herriko Ostatuan Baztan Zopak. **Gauetz** dantzaldia AZPEITIKO BIKOTEA akordeoilariarekin.

## Larunbata 6

**11:00etan** gaztetxo-en txapelketako laxoa partida, Oitz eta Donezteberen artean. **11:00etan** mus txapelketa herriko elkartearen. **17:00etan** haurrentzako jokoak herriko plazan. **Ondotik** haurrentzat eta helduentzat txokolatea. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

## Igandea 7

**11:00etan** afizionatuen arteko pilota partidak. **17:00etatik aitzinera** herriko artisauen erakusketa. **17:30etik aitzinera** herri kirolak: Je-

xux Agite, lehenbiziko aldiz, borts metroko altueran, kanako egurra mozten ahaleginduko da erlojuaren aurka. **Ondotik** Nafarroako Hirugarren Mailako Aizkolari Txapelketako finala: Patxi Mindegia, Ruben Saralegi, Julen Kañameres, Raul Kastro eta Oihan Larretxea. **19:00etan** herritarren arteko V. Patata Tortilla Lehiaketa. **Ondotik** tortilla, xingar eta txistor dastaketa. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia JOXE ANJEL akordeoilariarekin.

## Astelehena 8

**11:00etan** Meza Nagusia. **Ondotik** luntxa Herriko Ostatuan. **14:00etan** herri bazkaria, Maialen Lujanbio eta Sustrai Kolina bertsolariarekin. **17:00etan** toka eta sokatira herritarren artean. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia JEXUX MARI akordeoilariarekin. Beste bukaera emateko, kalejira eta GAIXOA NI.



ARGAZKIAK: ALBERTO SAN MIGEL

**Aurten ere ez da umorerik faltako herriko besten barne. Horren lekuko da goian ageri den herri bazkariko irudia.**

POSADA OITZ  
Tel.: 948 451 951 / 948 450 168  
Oitz (Nafarroa)  
*ongi pasa bestak*

OITZKO UDALAK - NAFARROA

**Oizko Udalak**  
*besta zoriontsuak opa dizkie herritar eta bisitari guziei*

EZPELURA ITURGINTZA S.L.

Kalefakzioa • Gasa  
Elektrizitatea • Eguzki plakak  
Zoru bero emailea

Tfnoa.: 606 337 427 • OITZ (Nafarroa)

## MALERREKA-BERTIZARANA

# Asteburu honetan egingen da Santa Leokadiako erromeria Legasan

Igandean, meza ondotik bazkaria egingen da ermitan

### ttipi-ttapa

Ez da aste bat pasatu herriko bestak akitu zirenetik, baina asteburu honetan ere ospakizunekin segituko dute Legasan. Santa Leokadiako erromeria egingen da larunbat eta eta igande honetan. Larunbatean, hilak 6, txupinazoa botako da eta ondotik zopak izanen dira ermitan. Igandean, berriz, 12:00etan Meza Nagusia izanen da. Ondotik, 13:30 aldera, bazkaria egingen da ermitan. Bazkalondoa animatzeaz Duo Antxeta arduratuko da.

### Dirulaguntzak

Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza Departamentuaren bidez, Udal Plan

Orokorrak egiteko dirulaguntza jasoko dute Oitz, Urrotz eta Doneztebeko udalek. Laguntza heldu den urtetik aitzinera banatuko da, hiru zatitan.

Oitzek, erraterako, 45.000 euroko laguntza hartuko du: 2009an 9.000 euro jasoko ditu; 2010ean 27.000 euro eta 2011n bertze 9.000 euro.

Urrotzek zertxobait gehiago jasoko du, 48.000 euro guztira. 9.600 euro 2009an hartuko ditu; 28.800 euro hemendik bi urtetara eta 2011n 9.600 euro.

Doneztebeko Udalarentzat 120.000 euroko laguntza onartu da: 24.000 euro hartuko ditu 2009an; 2010ean 72.000 euro eta bertze 23.000 euro 2011n.



UTZITAKO ARGAZKIA

### 23 lagun Udako Kirol Eskolan

Erreka Kirol Elkartearen ekimenez, Udako Kirol Eskolan ibili dira lau astetan Doneztebeko neska-mutikoak. Aurtengoa VIII. edizioa izan da eta Maite Urreaga eta Ibai Mariezkurrena herriko begiraleen erranetara guztira 23 gaztetxo elkartu dira, sei urtetik goitikoak guztiak. Era aunitzetako kirol jarduerak egin dituzte: futbola, beisbola, futbito, eskubaloia, herri kirolak, frontenis, hockey, txirrindularitza... Argazkian ekimenean parte hartu duten neska-mutiko batzuk ageri dira, Maite eta Ibai begiraleekin.

## DIRULAGUNTZA

# Familientzako 11,4 milioi euro eman zituen iaz Gobernuak

### ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak 11.407.848 euro eman zituen iaz, familientzako zuzeneko laguntza gisa, eta aurten ere eskura izanen dira. Bikiak edo seme-alaba gehiago izan dituzten familientzako laguntzak guttienez bi urtez Nafarroan bizi direnei bideratuak daude. Bikiak izan dituzten familiek hilean 87,37 euro jasoko dituzte; hirukien kasuan hilean 218,43 euro; laukien kasuan 291,24 euro hilean. Lana eta familia bateratzeko, eszedentzietarako laguntzak hilean 400,46 eurokoak dira eta hirugarren seme-alaba edo gehiago izan dituztenek 2.402,76 euroko laguntza jaso dezakete. Hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten emakume langileen kasuan, 26.000 euro baino guttiago irabaziz gero, hilean 150 euro jasoko dituzte, eta urtean 26.000-40.000 euro artean irabaziz gero, hilean 100 euro. Lau seme-alaba edo gehiago dituzten familien kasuan, 397,21 euro jasoko dituzte urtean 18 urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko; eta 595,81 euro urtean, bortz seme-alaba edo gehiago baldin badituzte.

**BESTETAKO**  
argazkiak

www.ttipi.net

**m bentamiguel**  
denda, jatetxea eta ostalua

Ongi zaindutako sukaldaritza  
Menuak aukeran

Tabakoa  
Likorrak  
Janaridenda  
Urdategia

Ibardingo Lepoa · ☎ 948 631 209

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

## LEITZA

# Taloaren Eguna eta Zaldi Eguna egingen dira hurrengo bi asteburuetan

Larunbat honetan Taloaren Eguna izanen da eta datorrenean Zaldi Eguna

## Joseba URKIOLA

Ekitaldiz beteriko egunak izanen dira datozen bi larunbatak. Hasteko, larunbat honetan, hilak 7, Plazaola Partzuergo Turistikoak antolatuta Taloaren Eguna egingen da plazan. Aurreko urteetako emaitza ona ikusita, aurten ere egitarau osatua prestatu dute goiz eta eguerdi parterako:

### 10:00etan merkatuaren irekiera

- Leitzako talo egileak.
- Plazaola Partzuergo artisauak.
- Taloa egiteko eta baserriko tresneriaren erakusketa.
- Arto zuriketaren erakusketa.
- Taloarekin egindako plateren erakusketa, Leitzako jatetxe eta tabernek egindakoak.

### 11:00etatik 12:30era

- Taloa egiteko tailerra haurrentzako
- Haurrentzako talo lehia-keta.
- Sari banaketa.

### 12:30ean herri kirolak eta Aurrerako dantzariak.

- Harri jasotzaileak: Mieltxo eta Mari Jose Sardon.
- Aizkolariak: Olano eta Mugertza, Vicente eta Zabaleta.

## Zaldi Eguna irailaren 13an

Ekainean egitekoa zen Zaldi Eguna bertan behera gelditu arren, Aurrera Perra Taldeak aukeratu du ordezkoko eguna dagoeneko: irailaren 13a. Egitaraua ere zehaztu dute:

### INGURUARTEN

- 9:00etan ibilaldia Guratz-Peruari
- 10:30ean Leitzatrek Haurrentzako poniak Zaldi erakusketa Gurdian paseoak

### PLAZAN

- 13:30ean zaldi proba
- 14:30ean bazkaria Bazkarirako txartelak: Albaitak (Iruztun), Tranko (Astigarraga), Leitzeko ogia (Tolosa) Bar Txokon (Leitza).

### INGURUARTE

- 17:30ean Western heziketa Heziketa naturala Zaldi-gurdiaren erabileraren erakusketa Espainiar heziketa Jinetada

### AURRERA

- 23:00etan Country musika: Lobo & Carmina.

## Gozamenez beteriko gaua

Gizarte Zerbitzuak, le-



ARGAZKIA: KONTXI SOLA

## Metaziri nagusi bigarrenez

Koadrilen arteko Eskolatako Futbol Txapelketak abuztuaren 9an izan zuen amaiera. Final handiko protagonistak Metaziri (urdinak) eta Baxerri (beltzak) izan ziren. Tiburtzio Donearen jaiak asteke ordu gutxi falta zirela eta, jendetza andana hurbildu zen institutu alboko zelaira. Partida hasi aurretik batzuen eta besteen aldeko oihuak entzun zitezkeen. Futbol zelaia erdibitua zegoen. Baina azkenean, Metaziriko aurrelari zein erdilarien eraginkortasuna eta defentsaren sendotasuna Baxerri taldearen nahi eta gogoari gailendu zitzaion. Txapelketa guztian bezala, Baxerri gogotsu jardun zuen baina ezinezkoa izan zitzaion Ibai Elizalderen atea zulatzea. Azkenan 2 eta 0 garaipena Metazirirentzat. Aipatu, aurten goarekin bigarren aldia dela talde urdinak txapelketa eskuratzen duena.

hengo urtean egin bezala, Gaztetxea eta Kiroldegiaekin batera uztailearen 18an 'Gozamenez beteriko gaua' antolatuko da. Gau berezian, udal igerilekua izan zen erdigune. Gau desberdin, bakar eta gozagarribat eskaintzen ahale-

gindu ziren antolatzaileak. Horretarako igerilekuan foku batzuk paratu zituzten eta gerturatutakoek hainbat ekintza desberdin egiteko aukera izan zuten. Zipriztinez homitutako ekintzekin batera; txalaparta doinuak, dantza erakustaldia eta

bideo emanaldi bat ikusteko aukera ere izan zen. Sexualitatea bizitzan oso garrantzitsua dela jakinarazteko egin zen besta hau. Beldurrak, mamuak, arriskuak alde batera utzi eta askatasuna, errespetua eta alaitasuna bezalako balore zein bizipenak sustatzeko.

## Hurrengora arte Tiburtzio!

2008ko Tiburtzio Donearen jaiak agur esan dute. Urtero legez, nekez nekatzen den txarangak eman zien aurtengo pestei amaiera. Jendetza gehiena erakarri dutenak Aurrera Kirol Elkarte dantzariak eta Gipuzkoatik etorritako adardun animaliak izan dira. Hala ere, pestak bi hitzetan laburtu behar bagenituzke, horiek herri giroa eta berritasuna izango liriteke. Herri giroa, abuztuaren 9ko jendetzaz aparte, jaietako egun guztian herritarrek kanpotarrez gain nagusi izan direlako. Koadrilen afaria ere ezin ahantzi, 500 lagun baino gehiago bildu baitziren plazan. Berrikuntza, besteak beste, Goitibehera ikuskizunak eta Breakdance emanaldiak ezarri zuten.

**ttipi**  
**ttapa**  
☎ (0034) 948 635458

**ZJ**  
**Zalain**  
jagetxea - hostala  
14 logela bainu eta TBrekin  
Zalain auzoa z/g  
Tfnoa: 948 63 09 67  
BERA

**Pitti**  
eskabazloak  
Tel: 616 513 491  
Mendialdea etxea, 34 ZUBIETA

## GOIZUETA

# Indar ikaragarria Amabirjinarena!

Parranda giro aparta eta une hunkigarriak sei egunetan

**Esteban AROTZENA**

«Badik indarra galanki gure Amabirjin honek!». Horixe esaten zuen herritar batek astelehen arratsean zegoen jendetza ikusita. Ba atera kontuak astelehenean harritzeko moduko giroa baldin bazegoen, nolako izan zen osteguna, ostirala, eta batez ere, larunbata gauekoa!! Herriaren kokapen «bereziak» edo inguruko eta urrutixegoko sona handiko jaiak ez dira oztopo gure kale, taberna eta txoznak festazalez betetzeko. Miraria? Ez gara hasiko hemen Amabirjinaren indarra ukatzen, baina garbi dago arrakasta hau ez dela «goitik» heldu den miraria, «behean» egiten den lana baizik. Herriko erakunde guztien bete-be-

teko parte-hartzeaz Udalak egiten duen esfortzu ekonomikoa (55.000 euro) gehitzen baldin bazaio, gure festen handitasunaren zergatia aurkituko dugu. Hortxe dago miraria.

Amabirjinak orokorrean hunkigarriak dira goizuetar peto-petoztat, baina aurten zentzu horretan gailurra jo zen larunbat ilunabarreko Umore Ona dantza taldearen emanaldian. 6 urtetik 46 urte bitarteko 60 herritarrek eskainitako ikuskizunak askoren begiak busti zituen. Gehienek ez zekiten gainera maila horretako talderik herrian bazegoenik ere, orain dela bi urte eskas hasi baitziren lanean laupabost urteko etenaldiren ondoren. Zoriontzekoa partaide guztien la-



Gazte Asanbladak bota zuen Amabirjin jaiari hasiera eman zien itxaferoa

na, baina eskertzekoa bereziki Elena, Unai, Itsaso, ... eta beste hainbeste kolaboratzaileena. Jende askok ez zuen emanaldia ikusterik izan frontoia gainezka zegoelako.

### Eskolako obra

Aurreko alean iragarritako eskolako obra (sarrerako atea eta beheko solairuko leiho guztiak berriak egin) gauzatu da umeen oporraldia aprobetxatuz. Bi enpresak erantzun zioten Udalaren deia: Zabala y Gokoetxea (83.846 euro) eta Cristalerías Hernani (67.626 euro). Lana Hernanikoei ematea erabaki zuen Herriko Etxeak.



ARGAZKIA: NAJARA AROTZENA

### Umore ederrean Artikutzan

Adin guztietako goizuetarrez gain, gurekin muga egiten duten beste hainbat herritako ehunka lagun elkartu ziren San Agustin Egunean Artikutzan.

1951tik lentzeria etxea  
**Casa Cambra**

**MANTA ESKAINTZA**  
edredoi nordikoak azal nordikoak mantak maindireak  
ohe estalkiak albornoak toailak kuxinak mantelak

Tafalla, 13 Iruñea - Pamplona

948 230 634

## ARESO

# Asier Pellejerok III. Mailako Aizkora Txapelketako finalerako txartela lortu du

Finala urriaren 19an jokatuko da Altsasun

**Juana Mari SAIZAR**

Euskal Herriko III. Mailako Aizkora Txapelketako lehenengotopaketa Gorritin jokatu zen joan den abuztuaren 23an, eta Asier Pellejero Aresoko aizkolari gazteak finalerako sailkatzea lortu zuen, Ander Erasun aurtiztararekin batera. Gure aldetik, zorionak eta ea Altsasun urriaren 19an jokatuko den finalean lan on bat egiten duen. Animo!

## Festak giro onean

Aurtengo festak ere jo-

an dira eta esan beharra dago urtetik urtera

gero eta jende gehiago ari dela animatzen he-

rrian agertzen eta baiekitaldietan parte har-

tzen ere. Koadrilen Egunean, esaterako, lehenengo urtean baino bi koadrila gehiago osatu ziren eta oso egun polita izan zen. Jokoetan, aurtengo irabazleak Gorriak izan ziren. Gainerakoan, festetan, tripa festa ere eduki dugu, herri afaria, bokadilo jatea, herri bazkaria eta paelladarekin.

Bertzalde, aurtun, zapiak ere ikusi ditugu festetan, Udalak herritarrentzat atera baitzituen salgai jarritz. Zapi urdinak izan dira, eta Areso idatzi eta lauburu beltz bat ageri dira.



ARGAZKIA: ITXARO GERENO

Koadrilen Egunean, gazte zein heldu jende andana atera zen kalera.

## ARANO

# Egindako lana eskertzeko omenaldia jaso du Joxan Ruizek San Roke Egunean

1970az geroztik bera arduratu da egun hau antolatzeaz

**Kontxi KLABER**

Jende asko elkartu zen aurtengoan ere San Roke ermitan 11:00etako meza entzuter. Bukatutakoan kalejira egin zen herri-rako bidean eta pilota partidak ere bai urteroko ohitura mantenduz. Kontzeju tabernan bazkaldu ondoren Joxan Ruiz omendu zuten, 1970etik jai hau an-

tolatzeaz arduratzeagaitik, egindako lan bikaina eskertu nahian. Agurra dantzatu eta plakak eta lore sorta eman zizkioten Joxan Ruiz eta Maitere Minerebere emazteari. Ondoren, Aranoko Martxa kantatu zuten, Patxi Apezetxea txistulariak egindakoa eta Xabier Legarreta bertsolariak hitza jarrita.

**ARANOKO MARTXA**

*Iturri, lur, haritz eta pago/ erreka, bi-xenda eta basuak/ Harri, abere eta famili, etxe, baserri eta auzuak/ Mendez-mende, gizaldiz-gizaldi/ gurasuen gurasuen gurasuak/ zeukaten maite zutelako/ gero zetozenentzako jas-uak.*

*Irauteko borrokatzen duten/ harrizko pareten*



ARTXIBOA

Urtero bezala, San Roke Egunez ermitan bildu ziren herritarrek meza entzuteko.

*joan etorria/ itsasoa lur naparrarekin/ bat egiten duten lokarria/ Artzaien nekea saihesteko/ goie-*

*nean eraikitako herria/ bailara oso baten gaitetik/ beragokoak zain-tzeko jarria/*

## ERATSUN

# Lokariko Amabirjin bestak irailaren 5etik 8ra

Egun haundian, astelehenean, aizkora apustua eta pilota partidak izanen dira

### Ostirala 5

**19:00etan** altxaferoa beste hasiera emateko. **Ondotik** kalejira herriko trikitilariekin. **Gauetz** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

### Larunbata 6

**9:00etatik aurrera** txistulariak herriko karrikak alaitzen ibiliko dira. **11:00etan** mus txapelketa. **Goiz eta arratsalde** umeentzako parkea. **14:00etan** herri bazkaria Iker Zubeldia eta Amets Arzallus bertsolariekin. **18:00etan** hegazti harraparien erakusketa. **Arratsalde eta gauetz** dantzaldia TRAKETS taldearekin.

### Igandea 7

**9:00etatik aurrera** herriko txistulariak karrikak alaitzen ibiliko dira. **11:00etan** paella lehiaketa. **Ondoren** paella dastaketa sagardo kupelarekin. **17:30ean** pilota partidak: le-

henbiziko partidak, Idoate-Otxotorena, Urtasun-Azanzaren kontra. Bigarren partidak, Ollol-Landiribar, Onsalo-Gallarragaren kontra. **Arratsalde eta gauetz** dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin.

### Astelehena 8 Lokariko Amabirjinaren Eguna

**9:00etatik aurrera** txistulariak herriko karrikak alaitzen ibiliko dira. **11:00etan** Meza Nagusia Lokariko Amabirjinaren omenez. **13:00etan** aizkora apustua: Mikel Mindegia eta Patxi Mindegia aita-semeak, Anjel Arrospide eta Ander Erasunen aurka. **18:00etan** pilota partidak: lehenbiziko partidak, Bendoiro-Soroa, Tainta-Iriarteren kontra arituko dira; eta bigarren partidak, Iraola-Urzainki, Ollol-Galartzaren aurka. **Arratsalde eta gauetz** dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

**Aurten ere ez da aizkora apusturik faltako eta astelehenean izanen da. Trikidantz taldea, berriz, lehen eguneko plaza bazterrek alaitzeaz arduratuko da.**

**Ginko**  
Lorezaintza

**Karmele Tolosa**  
31760 Etxalar (Nafarroa)  
917 350 025  
967 695 695  
967 694 987  
zumeldi@gmail.com

Lorategi diseinu eta mantenimendua  
Lorategi ekologikoak inguruari egokitutako landareekin  
Itxiturak: begetalak, landareekin, harriekin...  
Lorezaintza ikastaroak ematen dira, taldean edo bakarka

**Kimetz**  
Belardenda

Uztailaren 14tik aitzinera irekia

**Eratsungo Udalak**  
besta zoriontsuak opa dizkizue

**ERREKALDE**  
PLATER KONBINAITUAK OSTATUA  
PINTXOAK  
BOKATIK  
TFNOA: 948 630 259 BERA

**BEINTZAKO OSTATUA**  
© 948 45 00 14  
orbela@alberguesnavarra.com  
www.alberguesnavarra.com/beintza  
31753 BEINTZA LABAIEN  
**ORBELA**  
Santesteban • Albergoa

**Iñaki Alzuiet margoak**  
Fotodak • Barnealdak  
Dekorazioa (estuko, belazurk...)  
Pledura • Lakatu eta barnizatu kabiran  
Kamietea Etxea - Landibar Auzoa - 31711 URDAZUBI  
Tfnoa: 659 862 417

## BAZTAN

# Arte garaikideko museoa zabaldu dute Iruritako Jauregia etxean

Bisita gidatuak egiteko Bertizko Partzuergo Turistikorat deitu behar da

## Maite OTEIZA

Buruilaren 1ean, as-telehen honetan, arte garaikideko museoa bihurtuta, bere ateak ireki zituen Iruritako Jauregia etxeak. XIV eta XV. mendeetan eraikitako etxe honek altxor historikoa dauka bere pareten artean gordea: altzariak, koa-droak eta liburutegi garrantzitsu bat ere bai, XVI. mendeko idatziekin.

Bere nagusia den Joxe M<sup>a</sup> Hualde historiar lizentziatua da, eta betidanik eskualdeko historiaz interesatua egon da. Hala, jendea-ri bertako historia eza-gutarazi behar zaiola irizita, Nafarroako Go-bernuak antolatu duen 2008ko Jabego Pribatu- en Irekiera Progra- man hartu du parte.

Garai desberdineta- ko altzariak eta arte ob- jektuak tartekatua- ikusteko aukera ema- ten du museoak, etxe- ko norbaitek gidatuta- ko bisitarekin. Bisitak egin ahal izateko Ber- tizko Partzuergo Turis- tikorat deitu behar da aitzinetik, 948 592323 telefonora.

## Iturri Ederrak superabitarekin itxi zuen 2007a

Elizondoko ur horni- duraz arduratzen den Iturri Ederra Ur Elkarte- ak 69.918,27 euroko su- perabitarekin itxi zuen 2007a. 313.703,61 eu- roko diru sarrerak edu- ki zituen eta gastuak 243.785,34 eurokoak izan ziren. Sarrera gehienak ur zerbitzua- gatik jaso zituen, 277.513,63 euro. Hiru- garren hiruhilekoan izan zuen fakturaziorik al- tuena, 73.709,03 euro guztira. Gastuei dago- kienean, berriz, NILSA- ri horniduragatik eman beharreko kanonak era- gin zien gehiena, 99.583,38 euro guztira. Enpresaren zerbitzuek, berriz, 50.977,72 euro- ko gastua eragin zuten.

## Entrenatzaile berria BKTn

Baztango Kirol Tal- deko maila nagusiko tal- deak entrenatzaile be- rria du denboraldi ho- netan. Julian Baldanta elizondarrak hartu du Joxe Iturzaetak urtee- tan izan duen ardura eta dagoeneko hasiak dira entrenamenduetan.



RAKEL GOÑIK UTZITAKO ARGAZKIA

## Baztan taldea Bost Kirol Txapelketan

Abuztuaren 9 eta 24an Baztan taldea lehenengoz aritu zen Bost Kirol txapelketan. Aurten Oroz Betelun jokatu ziren partidak. Baztan taldean Huarte anaiak, Martintxo Mendikoa, Joseba Oskariz II.a eta Etxarri aritu ziren. Bi egunetan Oberena eta Errealaren aurka aritu ziren, eta lehenengoan aurka galdu bazuten ere bigarrenen kontra irabazi egin zuten. Egun pasa baztan- dar aunitz joan ziren partidak ikustera, argazkian ederki ikus daitekeenez.



ARGAZKIA: ONDIKOL

## Eguneko esne pasteurizatua banatzeko makina

Anizko Jauregia baserrikoek bertze urrats bat eman dute beraien behi-es- neari merkaturako bidea zabaltzerakoan. Duela lau urte, 2004an, jogurta, jo- gurt irabiatua eta gasna saltzen hasi ziren. Joan den urtean esne pasteuriz- atua egiten hasi ziren. Abuztuaren 13an, berriz, bertze urrats bat eman zu- ten beraien produkzioa merkaturatzeko orduan eta eguneko esne pasteuriz- atua banatzen duen makina, estatu osoko lehenbizikoa, paratu zuten Eli- zondon. Mikel Azkaratek aipatu zuenez, duela urtebete ezagutu zuten ma- kina hau Italian eta horrelako bat Elizondon paratu behar zutela otu zitzaie- n. Makinak 300 litro hartzen ditu eta etengabe berritzen da esnea. Norberak bere ontzia edo botila eramatea komeni da, baina makinak berak ere eskain- tzen du plastikozko edo kristalezko botila. Litro bat hartzen ahal da euro ba- ten truke, edo litro erdia 50 zentimoren truke. Behin eguneko esnea hartuta, borts egun baino lehen kontsumitzea komeni da, baina hozkailuan ongi zain- duta, astebetetz bere kalitatea gordetzen du. Garai batean bezala, baserriko eguneko esnea izateko prozesua erraza dirudi orain Baztanen: behia jeitzi, modu egokian garraiatu, makinaren tankea bete eta salerosketa...

**POTTOKI**

Baztanberri Plaza, 3 - behea  
31700 ELIZONDO (Nafarroa)  
Tfnoa.: 948 581 983  
info@pottoki.com  
www.pottoki.com

Astelehenetik  
larunbatera:  
9:30 - 13:30  
16:30 - 20:00

**MENDIALDE**  
Jatetxea

T: 948 453 060  
N-121-B, 66. km  
LAMAÏUR

**ARMUA** JATETXEA

T: 948 599 131  
Zugarramudiko errep. 3 km  
URDAZUBI



**BAZTAN**

## Baigorriko Ikastolaren aldeko Txalaparta besta egingen da igandean Izpegiko lepoan

Nafarroa Behereako eta Baztango txalaparta taldeek antolatutako ekimena da

**Maite OTEIZA**

Baztango eta Nafarroa Behereako txalaparta taldeek antolatuta, txalaparta besta egingen da igande honetan, hilak 7. Izpegiko lepoan egin dute hitzordua eta hainbat musika tresnaren topaleku bihurtuko da: txalaparta, txistua, txirula, trikitixa... Euskal Herri guziko txalapartariak ere bilduko direla iragarri dute antolatzaileek.

Azken hauek adierazitakoaren arabera, goizean mendian ibili ondotik arratsaldean besta giroa ziurtatua izanen da, eta jan eta edatekoa eskainiko da: taloak, ogitartekoak, edariak... Biltzen den guzია Baigorriko Ikastolaretzako izanen da.

**Baztanen hartza?**

Abuztu hasieran bertze solasaldirik ez zegoen Baztanen: Orabidean hartz hil bat agertu zela. Bertako biztanleak, usain txarraz gidatuak, animalia haundibaten gorpua harrapatu zuten amildegi bate-tik beheiti. 112ra deituta Foru Poliziak eta In-gurumen Departamentu-tuko langileek bere gain

hartu zuten afera, misterio eta pris-a haundiarekin, bertaratzen zirenei hurbiltzea zailduz. Herritarren arabera, animalia arras haundia zen, agian 100 kilo ingurukoa, eta hartz baten itxura zuen, hanketan soka bat zuena. Hasiera batean hartza zela zabaldu zen arren, Nafarroako Gobernuak ezeztatu egin zuen berria, izugarrizko tamainako zakurra zela adieraziz. Egia zein ote da? Edozein kasutan, ez dute argazkirik argitaratzea baimendu.

**UPN eta NaBairen arteko hika-mikak**

Hondarreko hilabete hauetan, Nafarroako eta eskualdeko prentsan Baztango bi alderdien arteko hika-mikaren entzule, ikusle eta irakurle izan gara: salaketak —ez epaitegietan—, akusazioak eta abar. Batek gauza bat salatzen duen bitartean, bertzeak erantzun, eta hortan gan zitaizkigun gan den ikas-turte bukaera eta uda-toko parte bat ere bai.

Zer lortu nahi da, baztandarren artean haserreak sortzea? Baztandarrak elkarren artean

mokoka ibiltzea? Eta Sanferminetan bi alderdietako ordezkari batzudenak elkarrekin bes-

tan. Espero dezagun baztandarrok maila haundiagokoak izatea, eta gure artean liskarrak

eta haserreak ez izatea, eta udaletxean dauden guztiek elkarrekin Baztanen alde lan egitea.



ARGAZKIA: ONDIKOL

**Amaiurko XXXIII. Artzain Zakur Lehiaketan gipuzkoarrak nagusi**

Peio Segurola eta Artzai zakurra nagusitu ziren abuztuaren 15ean Amaiurren jokatu zen XXXIII. Artzain Zakur Lehiaketan, Patxi Etxeberraren laugarren memorialean. Parte hartzaile guztiek maila ona eman zuten, baina iazko irabazleak, Gipuzkoako txapeldunak, nagusitu ziren aurten ere Gazteluko maldan. Bigarren postua Alduideko Martzel Ugalde eta Txiko zakurrarentzat izan zen, eta hirugarrena Mikel Aizpuru oiartzuarra eta Betti zakurrarentzat. Laugarren postua Felix Irigoien amaiurtarrak eta Peio bere zakurrak eskuratu zuten. Egun berean, baina goizean, zazpigarrenez ardi eta ahari lehiaketa egin zen. Guzira, sei ardi eta ahariz osatutako 50 artalde aurkeztu ziren, 350 buru. Muturgoerien artean, Arraiozko Felisa Ugartek aurkeztutako bi artaldek irabazi zuten lehen eta bigarren kategorian, eta Zugarramurdiko Iñaki Zubillagak lortu zuen lehen saria hirugarren mailan. Mutur beltzetan, berriz, Almandozko Begoña Etxalarrek irabazi zuen lehen mailan; Elizondoko Manuel Bertizek bigarrenen eta Almandozko Norberto Agerrek hirugarrenean. Ardi Gasna Lehiaketako saridunak, berriz, Amaiurko Begoña Etxandi, Urdazubiko Manuel Bengoetxea eta Berako Xokorro Almandoz izan ziren, bakoitza bere kategorian.

**SOULE**  
hileta artea  
Tfnoa. 948 453 444  
Mug.: 629 659 583  
ARIZKUN

**MENDI**  
ostatua  
Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

## BAZTAN

# Elbeteko bestak irailaren 12tik 15era

Igande arratsean lau lagunentzako afaria, kafe-gailua eta bi gasna zozketatuko dira

## Ortzileria 12

**18:00etan** altxaferoa eta ezkil jotzea. **21:00etan** Herriko Ostatuan Baztan Zopak (txartelak ostatuan salgai). **00:00etan** txopo goratzea. **Ondotik** dantzaldia FRANTZISKO akordeolariarekin.

## Launbetea 13 Zikiro Egune

**9:00etan** argisoi-nuak. **14:00etan** zikiro jatea Txumak alaiturik (txartelak Elbeteko ostatuan eta Karrika ostatuan salgai. Oharra: Ba-koitzak bere platera, tenedorea eta nabala eraman beharko ditu). **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. **00:00etatik aitzinera** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

## Igendia 14 Gurutze Sainduaren eta Haurren Egune

**9:00etan** argisoi-nuak. **11:00etan** Meza Nagusia. **Ondotik** mutildantzak plazan. **Segidan** luntxa Ostatuan. **16:30ean** haurrentzako malabare tailerra. **18:00etan** bat-bateko mus eta partxis txapelketa. **18:30ean** txokolatada. **19:00etan** Sergio magoaren erakustaldia. **20:30etik 22:30era** dantzaldia TXUMAREKIN. **22:30ean** zozketa: lau lagunentzako afaria, kafe-gailu express bat eta bi gasnen zozketa.

## Astelehena 15 Herritarren Egune

**9:00etan** argisoi-nuak. **14:00etan** herri bazkaria Karrikatxarren, Estitxuk alaiturik. **00:00etan** GAIXOA NI.



ARGAZKIAK: FERNANDOK UTZITAKOAK

Ez dira oraingo argazkiak, ez horixe! 1953an aterakoak dira! Goiko argazkia Berekotzeko terrazan ateratakoa da eta herriko mutil gazteak ageri dira, Mauricio eta Felix txistulariak tartean direla. Tarteko argazkian, berriz, emakumezkoekin ageri dira mutilak. Hirugarrenean, azkenik, gizonezkoak baino ez dira ageri. Duela 55 urteko Elbeteko beste-tako irudiak dira. Orduan bezala aurten ere umorea ziurtatua izanen da.

HOSTAL RESTAURANTE JATETXEA

**ELBETEKO POSADA**

besta onak pasatzea opa dizuegu!

Eguneko Menua  
Aste hondarretan karta  
Enpresa otorduak,  
famili bikurak,  
bataioak...

www.posadaelbete.com  
info@posadaelbete.com

7 logela bainugelarekin

Karrikaundi Karrika • ELBETE  
JATETXEA-Tel. 948 581383 • HOSTALA-Tel. 948 581519

Maderas

**GOMEN**

Tel: 948 580 645  
Zalduvia industrialdea  
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta reguesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

## ZUGARRAMURDI

# Irailaren 1az geroztik Juan Zabalza da herriko apaiz berria

Imanol Prieto orain arteko apaizak Olazti aldera joateko agindua jaso du

### Koro eta Margari

Apaiz aldaketa izan dugu herrian: orain arte zegoen Imanol Prieto Olazti eta Ziordira igorri dute eta irailaren 1etik honat Juan Zabalza Iruñeko apaiza berria dugu.

Honen harira, aipatzekoa da urtero egiten den borts herrietako elizen topaketaren besta Imanoli agurra eta Juani ongi etorria egiteko baliatu dela. Besta hau Arizkunen egin zen abuztuaren 30ean, eta Zugarramurdi, Urdazubi, Amaiur, Erratzu eta Arizkungo hainbat jende bildu zituen.

### Erakusketa Sorginen Museoa

Sorginen Museoko erakusketa gelari probetxu handia ateratzen ari zaio. Momentu honetan eta irailaren 21a arte, Berako margolaria den Oaia Peruarenak dauka bere margolanen erakusketa paratua.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORU

### Giro onean joan dira bestak

Franko eguraldi kaxkarrakin baina azken urteetako giro hobereenetako bestak izan dira aurtengoak, eta hori batez ere plazan nabaritu da, bai gauzez, baita arratsaldez ere (honek merito gehiago!!!) jende aunitz ikusi baitzen plazan dantzan. Eguraldi txarraren ondorioz, Andre Mari Eguneko dantzariak ezin izan genituen ikusi, baina haietako batzuek arratsaldez Patxi eta Konpainiak erakustaldi txiki bat egin ziguten. Bertzalde, aurtengo beste-tako berrikuntza ziganteak izan dira. Orain arte Berakoak ekartzen ziren, baina aurten zigante propioak izan ditugu: Aker eta Mari. Argazkian ageri den bezala, ez dire usaian ikusten diren zigante hoietaoak, lehengo gaupasan antzerkia egiteko erabiltzen ziren papnakin baizik. Hala ere, ikusgarriak ziren eta jendearen gustukoak suertatu ziren. Eta azkenik, zozketaren emaitza hauxe duzue: lehenbiziko saria (Talasoterapiarako bi sarrera) 0224 zenbakiarentzat; bigarren saria (bi afari Herriko Etxeko jatetxean) 1.810 zenbakiarentzat; eta hirugarren saria (kutxa sorpresa) 1.211 zenbakiarentzat.

## FLASH

### Lau atxilotu Urdazubín lapurreta egitea leporatuta

Abuztuaren 25ean Foru Poliziak lau lagun atxilotu zituen, Dantxarinearako bentetan lapurreta egitea leporatuta. 10.000 euroko baliola duten gama altuko lurrinak lapurtu izana egozten diete. Bi emakumezko eta bi gizonzko dira atxilotuak, 20 eta 41 urte bitartekoak eta jatorri errumaniarra dutenak. Poliziak Mendillorri antzeman zituen, susmagarritzat jo zituen bi kotxetan Iruñera bidean zihoazela. Nafarroako Gobernuaren arabera, Madrilen eta Zaragozan bizi ziren, eta Bartzelonan lauetako bat bilatzeko agindua zegoen.

### Erretiratuen elkarteentzako dirulaguntzak

2008an egin behar dituzten ekitaldietarako dirulaguntzak eman dizkie Nafarroako Gobernuko Gizarte Gaiak, Familia, Gaztedia eta Kirol Departamentuak Nafarroako adinekoen eta erretiratuen elkarteei. Eskualdeari dagokionez, Arantzako Zahar Txokok 4.591,37 euro jasoko ditu; Berako Lagun Handiak Elkarteak 1.000 euro; Etxalarko Larraburua Elkarteak 3.240,36 euro; Goizuetako Jubilatuen Elkarteak 3.497,15 euro; Igantziko Baratzondo Zahar Etxeak 1.585,46 euro; Leitzaoko Jubilatuen Elkarteak 1.660,30 euro; Lesakako San Fermin Elkarteak 4.524 euro; Doneztebe-Malerreka Elkarteak 1.648,80 euro eta Arkupeak Elkarteak 60.000 euro.

Carlos Garaikoetxea Etxenike abokatu

Tfnoa.: 948 581 468  
Mug.: 630 354 818

Santiago, 59 2C ELIZONDO

**MONTXO** OSTATUA

Dantxarinearatik 2 km-tara

**TABAKO-DENDA ANZAN-BORDA - URDAZUBI**

Egunero irekia 10:30etik 02:30era

**ESIP**

Energia Berriztagarrien Instalazioa eta Ingeniaritza

**Eguzki-energia termikoa**  
< Kontsumoko ura berotzeko  
< Berogailuak  
< Igerilekuetako ura berotzeko

**Eguzki-energia fotoboltaikoa eta haize-energia**  
< Etxe bakartuak elektrifikatzeko  
< Sare nagusiarri elektrizitate saltzeko

**Biomasa** < Pellets galdarak

ALTSASU  
www.esipsolar.com  
info@esipsolar.com  
T eta F: 948.564.024  
Mug: 609.74.52.25

## SARA

# Herriko bestak buruilaren 13tik 17ra

Denetarik ekitaldiak izanen dira: kirol saioak, kantaldiak, kontzertuak...

## Larunbata 13

**17:00etan** Sara Korrika, 12 kilometroko lasterketa. **22:00etan** animazioa THE TXORTAIN taldearekin. **23:00etan** kontzertua STUPENDA JONES taldearekin. **00:00etan** dantzaldia KOLOKA taldearekin. **Gau guzian** Iparraldeko gaiteroak eta Koxeguy taldea karrikak animatzen.

## Igandea 14

**10:00etan** Meza Nagusia Urruñarrak klikerekin. **Ondotik** Tanborrada Mariñelak-ekin gaiteroak itzulian itzuli. **10:30ean** luzean errebotean, Azkaindarrak-Bat (Azkaine), Luzaz Gazte (Donibane Lohizune) taldearen aurka. **16:30ean** karrikan ibiladiaz: joaldunak eta ahate jokoak. **Ondotik** euskal kirolak: orga altzatzea, lasto altzatzea, sokatira eta buskailbiltzea. **18:30ean** trinke-

tean esku huska. Pleka Sariaren lehen finalerdia: Sorhouet - Jeannots, Lambert - Etchetoren aurka. **19:00etan** aperitifa Sarako Kantarien eskutik. **22:00etan** kantaldia ETCHART AHIZPAK taldearekin. **23:30ean** MIKEL HATS taldearekin dantzaldia. **00:00etan** suzko zezena.

## Astlehena 15

**Goizean** gaitero eta txistulariak karriketan ibiliko dira. **10:30ean** luzean errebotean, Frantziako Txapelketako finaleko errebantxa, Kapito Harri (Uztaritze) eta Section Paloise (Pau) taldeen artean. **13:30ean** zikirojatea Olhain ikastolak antolatuta, aterpean. **16:30ean** jokoak, Sarako *Interville*. **18:30ean** Zazpiak Bat taldearen eskutik euskal dantzak. **18:30ean** esku huska trinketean, Pleka Sariaren bigarren finalerdia:



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

## Aurten ere ez da umorerik faltako herriko bestetan.

Alfaro-Ezkurra, Larretxea-Kurutcharryren aurka. **20:00etan** aperitifa trikitilariekin. **22:00etan** kantaldia KANTIRUKI taldearekin. **23:00etan** ENTZUN taldearekin dantzaldia. **Gau guzian** Los Inconitos txarangak karrikak animatuko ditu.

## Asteartea 16

**Goizean** gaitero eta txistulariekin itzulian itzuli. **9:30ean** paxaka torneoa trinketean. **10:30ean** luzean errebotean: Noizbait (Hazparne) eta Spuc (Senpere) taldeak. **17:30ean** frontoian Joko Garbi. Lehen partida Izarra Pilota Eskolako gazteekin. Benjaminak (Frantziako txapeldunak) haurren kontra. **18:15ean** helduen partida: Lu-

zaz Gazte taldekoak (Albistur, Karrikaburu eta Etchart) Section Paloise taldekoen kontra (Olivier eta Yannick Laberdesque eta Vidou). **19:00etan** mutxikoak Kux Kux Txararangarekin. **20:00etan** Gaztetxean Erdi Aroko Gaua. **20:30ean** aperitifa trikitilariekin. **22:00etan** dantzaldia XLTOAK taldearekin. **Gau guzian** Kux Kux Tu karrikak animatzen.

## Asteazkena 17

**Goizean** gaitero eta txistulariekin itzulian itzulia. **9:00etan** trinketeko zabaldeian Azienda lehiaketa, herriko laborarientzat. **10:30ean** plazan haurrentzako jokoak (euria egitekotan kiroldegian). **10:30ean**

trinketean Pleka Xoko Txapelketako finalerdi gurutzatuak: Urdanpilleta -Bideondo, Agirre-Karikabururen aurka. **17:00etan** frontoian esku huska plazan, Euskal Herriko finaleko errebantxa: Maitia-Juanena, Arbeletche-Etchevers. **18:30ean** esku huska trinketean: Pleka Sariko finala. Trinketean eta plazan bertsolariak: Txomin Esponde, Miren Artetxe, Patxi Iriart eta Karlos Aizpurua. **Ondotik** zozketa. **19:30ean** aperitifa Amaia Riouseprousekin. **22:00etan** dantzaldia BIDEKOA taldearekin. **23:30ean** su artifizialak. **00:30ean** dantzaldia GAUBELArenkin. **Gau guzian** Los Incansables txaranga karrikak animatzen.



**SARA**  
HERRIKO ETXEA

Plazan elkar  
ikusiko dugulakoan  
Herriko Kontseiluak  
besta onak opatzen dauzkitzue

SARARI BALHOREAREN  
ETA LEYALTASUNAREN  
SARIA EMANA  
LUIS XIV-EK 1693-AN

egoi bardot obregozo arkitektoa  
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700  
948250371 iruñea · irabreko monastegia 62, 4ºC · 31011

HERRIBO  
ETXEBE  
EDANTEGIA  
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542519  
Maïxan eta Véronique

SARA

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 · BERA

**SARA**

## Bertze behin irabaziz gero Lamothén marka berdinduko du Etxegaraik

Lehen saratarra Philippe Vacquie izan zen bederatzigarren postuan

### Xan HARRIAGUE

Bertze garaipen bat baizik ez zaio falta Fernando Etxegarairi Ramuntxo Lamothek bost garaipenekin duen markara arribatzeko. Joan den igandean zortzi, beratarak laugarren aldiz irabazi zuen Kontrabandisten Lasterketa, 40 minutu eta 16 segundoko denborarekin. Azken urte hauetan Etxegaraik ez du kontrarik, eta azkeneko hirurak segidan irabazi ditu. Duela bi urte lasterketaren marka ere eskuratu zuen, 38 minutu eta 36 segundoko denborarekin.

Bosgarrena irabaztea gero eta zailago izanen du, bera eta bigarrenaren artean gero eta tarte tikiagoa izaten delako. Aurten 20 segundora utzi du Patxi Irazoki igantziarra. Horrek 40 minutu eta 36 segundo behar izan zituen 9 kilometroko itzulia bururatzeko. Azken urtean gero eta hobeki ibil-

tzen da Irazoki eta ez litzateke batere harritzekoa heldu den urteetan

Etxegarairen lekukoa hartzea. Hirugarrena ere bortziritarra izan zen, Iñi-

go Lasaga etxalartarra, hain zuzen ere. Lehen saratarrari dagokionez,

Philippe Vacquiek bederatzigarren postuan finitu zuen, 47 minutu eta 8 segundoko lana eginenez.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

### Xoko Txapelketan kanpotarrak irabazle

Utzailaren hondarrean finitu zen Xoko Txapelketa, eta aurten kanpotarrak izan ziren nagusi maila guztietan. Iaz Sebastien Telletxeak ohorea salatu zuen lehen mailako txapela irabaziz, baina aurten mailaz igo da, eta kontrakoak azkarragoak tokatu zaizkio. Hala ere, herritar batzuk ez ziren gaizki ibili, Koxe Oronoz eta Pierre Zunda finalera arribatu baitziren bigarren eta laugarren mailan, hurrenez hurren. Mailaz kanpokoan Gregori Agirrek irabazi zuen 30 eta 12, Jean Philippe Bideondoren aurka. Lehen mailan, Andoni Tellier nagusitu zen, Xavier Vigneau menean hartuz, 30 eta 17. Bigarren mailako txapela Dominique Agerrentzat izan zen Koxe Oronoz 30 eta 17 nagusitu baizitzaion. Ondoko mailan txapelduna Robert Burnier izan zen, finalean Ramuntxo Saint Martin irabazi baitzuen 30 eta 27. Laugarren mailan, berriz, Joan Ascasok irabazi zuen Pierre Zundaren aurka gailenduz, 30 eta 18.

### Herriko besten eskeak

Besta taldeko kideak etxez etxe sosa biltzen ari dira joan den igandean geroztik. Diru horrekin bestak antolatuko dituzte Saran, Herriko Etxeak ez baitu zerikusirik haien antolatetarekin. Egitarau guztia herritarrek ordaintzen dute, gazteek eske horietan biltzen duten sosa sarekin, baita larunbat arratsean kontzertuaren sarrera ordainaraziz ere. Inguruko herri gehienetan Herriko Etxeak ordaintzen ditu bestak, baina gurean hori betidanik saihestu nahi izan da besten neutraltasuna segurtatzeko.

Gainerakoan, aipatu, ondoko orrialdean ikusi ahal izanen duzuela aurtengo bestetako egitaraua.

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua  
Bakailu gaztua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. · Banarta, 8 - 23 pabilioia · LESAKA · Tfnoa: 948 631 536 · Faxa: 948 631 550

**SEAT**  
**VW**  
**HYUNDAI**  
**AUDI**

ZOANSA

**MARKA GUZTIEN KONPONKETA**

Banarta, 2 · Alkaiaga industrialdea  
**LESAKA** (sarrera Beratik)  
Tel: 948 625 555 · Faxa: 948 625 505

## SENPERE

# Kantu xaharren eguna Amotzeko Larraldea kultur etxean ospatuko da buruilaren 21ean

Maialen Errotabehere, Mixu eta Xabaltx hirukotearen MMX taldeak kantaldia eskainiko du Ibarrunen

## Franck DOLOSOR

Zazpigarren Kantu Xaharren Eguna Amotzeko Larraldea base-rian ospatuko da lehen aldikoz buruileko hirugarren igandean, 21ean. Ahozko literaturaren egun hortan, kantu xaharrak, bertsuak eta kantuzaleak ohoratzen dira. Aurten ere, adin haundiko senperrak gonbidatu dituzte gogoz dakizkaten bertsuak eman ditzaten. Bertzalde, herriko kantari gazteak ere agertuko dira eta sorpresa bat ere izanen dela iragarri dute... Buruilaren 21eko kan-

tu bazkarian parte hartu nahi duenak izena eman beharko du Oxtikenean edo turismo bulegoan, buruilaren 15a aitzin.

## Bestak Ibarrunen

Ohiturari jarraikiz, buruileko azken astean bestak ospatuko dituzte Ibarrun auzoan. 26an, ortziralean, zerriti jatearekin hasiko dira bestak. Izenak eman behar dira 20a aitzin. Larunbat arratsaldean pilota zoingehiagokaren ondotik, Jean Michel Bereau senperrak 20 kantu



ARGAZKIA: AUSTIN ZAMORAK UTZITAKOA

1999az geroz Oxtikenekoak kultur elkarteak apailatzen duen egunean, kantua, bertsua eta gaitzeko giroa nagusitzen dira.

emanen ditu publikoarekin batean kantatzeko gisan. Kantuzaleek huts egin beharko ez duten hitzordua da hori. Gero arratsean, Kuxkuxtu, Bixai eta Entzun taldeek alaituko dituzte bazterrak. Igande arratsaldean, MMX taldearen kantaldiaren ondotik Patxi eta Batbiru eta gero Doinuak taldeak agertuko dira Ibarrungo plazan. Azkenik, astelehenean, gazteen arteko jokoak eta Beñat Elizondo Urruñako esku soini-lariaren animazioa izanen dira. Besta on denei...



ARGAZKIA: MMX

Xabaltx zuraidarra, Maialen ezpeletarra eta Mixu urruñarra elgatu dira MMX hirukotea sortzeko eta diska bat egiteko. Bakoitzak bere kantuak emateaz gain, zombait kantu elgarrekin ematen dituzte. Maialenen boz gaztea eta ezia nahasten da bi gizon beteranoekin. Eskual diasporarengana gan aitzin udazken honetan, Senperen berean entzuten ahalko dira Ibarrungo besten karietarat igande arratsaldean.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA

## EZKONTZAK

**Vicente Martin Lacosta Uharte** eta **Fati-ma de la Merced Ayuso Aparicio**, Zi-gakoa eta Beriaingoa, uztailaren 12an Eli-zondon.

**Juan Jose Baoyones Amondarain** eta **Eva M<sup>ª</sup> Hernandez perez**, Elizondoko-ak, uztailaren 24an Elizondon.

**David Rivas Iparrea** eta **Ticiana Rote-lla**, Iruñekoa eta Italiakoa, abuztuaren 2an Elizondon.

**Xabier Lazkano Agerre** eta **Miren Ur-tizbera Goñi**, Doneztebekoa eta Leka-rozkoa, abuztuaren 2an Lekarozen.

**Alvaro Asa olibares** eta **M<sup>ª</sup> Jose Or-mart Juanikotena**, Iruñekoak, abuztua-ren 9an Elizondon.

**Jose Ramon Hornas Garcia** eta **Goi-zalde Urdanpilleta Amiano**, Gasteizkoa eta Elizondokoa, abuztuaren 16an Elizon-don.

**Eduardo Etxabari San Migel** eta **Mart-ha Miriam Varon Perez**, Iruñekoa eta Ko-lonbiakoa, uztailaren 25ean Oronoz-Mu-gairin.

**Iñaki Zaldúa Iriarte** eta **Maria Gimenez Gorjon**, Elizondokoa eta Iruñekoa, abuz-tuaren 15ean Iruritan.

**Mario Gil Gomez Salvador** eta **Edu-rne Villanueva Negrete**, Portugalgoa eta Ka-liforniakoa, uztailaren 12an Beran.

**Jose manuel Rosado Grado** eta **Ain-hoa Iturria Urtizbera**, Coruñaakoa eta Irungoa, uztailaren 26an Beran.

**Manuel Angel de la Cruz Perez** eta **Ain-hoa Arburua Juanikotena**, Irungoa eta Etxalarkoa, uztailaren 26an.

**Zigor Sagardui Mendieta** eta **Olaia Le-kuona Lujanbio**, Bilbokoa eta Goizueta-koa, uztailaren 25ean Goizuetan.

**Imanol Bazterrika Etxenike** eta **Miren Ilarregi Belarra**, Iturengoa eta Donezte-bekoa, abuztuaren 9an Iturenen.

**Jose Martin Olasagasti Otxoteko** eta **M<sup>ª</sup> de los Angeles Lucio Grandio**, Le-sakakoak abuztuaren 2an Lesakan.

**Jon Ugutz Ormaetxea Berroeta** eta **Mai-te Erro Gartzia**, Lesakakoak, abuztua-ren 9an Lesakan.

**Ainara Arburua Olagarai** eta **Iker An-salas Danboriena**, Etxalarkoak, abuz-tuaren 23an Etxalarren.

**Jose Jabier Arrizurieta Bildarraz** eta **Sonia Largo Diaz**, Tolosakoa eta Iruñe-koa, abuztuaren 2an Leitzan.

## SORTZEAK

**Leire Parisis Camino**, Urdazubikoa, uztailaren 17an.

**Iraia Farate Opoka**, Iruritikoa, uztailaren 11n.

**Maddi Lazaro Garmendia**, Elizondokoa, uztailaren 14an.

**Kaiet Fernando Iribarren Oteiza**, Elizondokoa, uz-tailaren 18an.

**Iraia Ballarena Jaen**, Elizondokoa, uztailaren 20an.

**Johan Alberto de Oliveira Caceres**, Elizondokoa uztailaren 1ean.

**Xabier Ospital Leiza**, Erratzukoa, uztailaren 18an.

**Marina Mendiburu Oharriz**, Azpikuetakoa, uztaila-ren 23an.

**Aiert Fagoaga Beola**, Arraiozkoa, uztailaren 26an.

**Nahia Altzuguren Lopez**, Elizondokoa, uztailaren 26an.

**Ilarry Jose Alves Lizkano**, Elizondokoa, abuztuaren 1ean.

**Maialen Ballarena Ripa**, Elizondokoa, abuztuaren 2an.

**Aimar Dyian Garate**, Iruritikoa, abuztuaren 3an.

**Nora Gallego Izeta**, Elizondokoa, abuztuaren 7an.

**Julen Barrenetxe Obregozo**, Anizkoa, abuztuaren 9an.

**Oinintza Gorosabel Irisarri**, Elizondokoa, abuztua-ren 13an.

**Daniel Altzugarai Tchichiasvili**, Elizondokoa, abuz-tuaren 15ean.

**Ugaitz Arribillaga Sarratea**, Amaiurkoa abuztuaren 15ean.

**Ekaitz Mitxelena Lekuona**, Berakoa, uztailaren 10ean.

**Haizea Mitxelena Lekuona**, Berakoa, uztailaren 10ean.

**Narrea Mitxelena Lekuona**, Berakoa, uztailaren 10ean.

**Ekaitz Moñux Irazabal**, Berakoa, uztailaren 13an.

**Jone Huitzi Santxez**, Berakoa, uztailaren 19an.

**Olatz Susperregi Aginaga**, Berakoa, uztailaren 29an.

**Peru Lekuona Molinero**, Berakoa, uztailaren 31n.

**Mikel Villaverde Erasun**, Beintza-Labaiengoa, uz-tailaren 31n.

**Mikel Arregi Etxarte**, Doneztebekoa, uztailaren 20an.

**Mikel Goienetxe Rodriguez**, Doneztebekoa, uztaila-ren 22an.

**Naya Sarratea Etxekolonea**, Doneztebekoa, abuz-tuaren 7an.

**Mikel Urdangarin Taberna**, Lesakakoa, uztailaren 14an.

**Beñat Criado Arruabarrena**, Lesakakoa, uztailaren 16an.

**Urko Olaizola Mendegia**, Lesakakoa, uztailaren 18an.

**Izaro Ugalderebe Zubizarreta**, Lesakakoa, uztaila-ren 26an.

**June Biñao Bertiz**, Lesakakoa, abuztuaren 6an.

**Kattin Madariaga Apaolaza**, Arantzakoa, abuztua-ren 6an.

**Iraide Burlada Lukanbio**, Arantzakoa, abuztuaren 19an.

**Unax Oskoz Antzizar**, Arantzakoa, abuztuaren 19an.

**Enaitz Oskoz Antzizar**, Arantzakokoa, abuztuaren 19an.

**Arkaitz Agirre Etxeberria**, Zugarramurdikoa, uztai-laren 24an.

**Iraide Agesta Perurena**, Urdazubikoa, abuztuaren 20an.

**Lorenzo Zubitur Pascual**, Leitzakoa, uztailaren 26an.

**Etor Lizarraga Bigera**, Leitzakoa, abuztuaren 14an.

**Yahya El Haou Moufcih**, Nartartekoa, uztailaren 21ean.

**Saray Lekuona Elizondo**, Urrozkoa, abuztuaren 16an.

**Aieko Mutuberria Amarika**, Zubietakoa, abuztuaren 7an.

**Urki Aragon Garrote**, Zubietakoa, abuztuaren 20an.

**Nahia Txoperena Saldias**, Igantzikoa, uztailaren 27an.

**Mattin Eugi Mendizabal**, Igantzikoa, uztailaren 28an.

**Gaizka Sein Arburua**, Igantzikoa, uztailaren 29an.

**Oinatz Baleztena Arregi**, Donamariakoa, abuztua-ren 7an.

**Kilian Louveau**, Sarakoa, ekainaren 26an.

**Ellande Goienetxe**, Sarakoa, ekainaren 27an.

**Milan Belleret Etxeberri**, Sarakoa, uztailaren 6an.

**Joakin de Arrieta**, Sarakoa, uztailaren 13an.

**Ainara Telletxea**, Sarakoa, uztailaren 29an.

## HERIOTZAK

**Pablo Perez Sanz**, Elizondokoa, uztai-laren 18an, 75 urte.

**Miguel Urrutia Bikondoa**, Iruritikoa, uz-tailaren 18an, 82 urte.

**Maritxu San Sebastian Telletxea**, Bera-koa, uztailaren 18an, 86 urte.

**M<sup>ª</sup> Josefa Irigoien Lizardi**, Igantzikoa, uztailaren 19an, 96 urte.

**Carmen Etxeberria Irigoien**, Erratzukoa, uztailaren 20an, 90 urte.

**Luisa Urtxegi Urtxegi**, Igantzikoa, uz-tailaren 21ean, 76 urte.

**Elias Ballarena Agerrebere**, Elizondo-koa, uztailaren 21ean, 73 urte.

**Joakin Salaburu Oraien**, Lekarozkoa, uztailaren 23an, 87 urte.

**Rosita Iantzi Elizondo**, Lesakakoa, uz-tailaren 27an, 87 urte.

**Pilar Iribarren Laurenzena**, Amaiurkoa, uztailaren 29an, 92 urte.

**Dolores Jaimerena Salaburu**, Iruritikoa, uztailaren 30ean, 80 urte.

**Dolores Pombar Larrea**, Berakoa, uz-tailaren 31n, 95 urte.

**Maria Altzugarai Lasaga**, Lesakakoa, abuztuaren 4an, 90 urte.

**M<sup>ª</sup> Jesus Larralde Tapia**, Lesakakoa, abuztuaren 6an, 67 urte.

**Jesus Zubillaga Gabilondo**, Leitzakoa, abuztuaren 7an, 75 urte.

**Jose Eiheragarai Alzualde**, Urdazubi-koa, abuztuaren 9an, 84 urte.

**Juan Lasarte Noain**, Ezkurrakoa, abuz-tuaren 9an, 86 urte.

**Enrique Quevedo Beola**, Elizondokoa, abuztuaren 9an, 79 urte.

**Jose M<sup>ª</sup> Artola Lopetegi**, Aresokoa, abuz-tuaren 8an, 84 urte.

**Eulalia Elizondo Uztariz**, Arizkungoa, abuztuaren 10ean, 90 urte.

**Roman Iparragirre Altamira**, Arantzako-koa, abuztuaren 11n, 78 urte.

**Irati Olano Zabaleta**, Leitzakoa, abuz-tuaren 12an, 14 urte.

**M<sup>ª</sup> Victoria Larraburu Mitxelorena**, Gaz-telukoa, abuztuaren 14an, 87 urte.

**Isidro Barberena Irigoien**, Zugarramur-dikoa, abuztuaren 14an, 76 urte.

**Amador Uriz Unziti**, Elizondokoa, abuz-tuaren 17an, 88 urte.

**Sagrario Arozena Peñagarikano**, Oha-rrizen, abuztuaren 19an, 69 urte.

**M<sup>ª</sup> Asuncion Sarasola Elizaga**, Elizon-dokoa, abuztuaren 14an, 53 urte.

**Natividad Elorga Etxeberria**, Urdazubi-koa, abuztuaren 23an, 85 urte.

**Raymond Hautziartzte**, Sarakoa, uztaila-ren 22an.

**Jean Pierre Berastegi**, Sarakoa, uztaila-ren 31n.

**Mari Françoise Zubilibia**, Sarakoa, abuz-tuaren 2an.



*Urak dakarrena urak daroa*

## PILOTA

# Doneztebek irabazi du aurtengo Baztan-Errekako Laxoa txapelketa

Herrian jokaturako final estuan 9-8 irabazi zion Irurita B taldeari

## ttipi-ttapa

Doneztebeko taldeak hamazazpigarren aldiz irabazi du Baztan-Errekako laxoa txapelketa. Abuztuaren 3an jokatu zen 29. edizio honetako finala Doneztebeko Bearzana pilota plazan eta Doneztebe A taldeak 9 eta 8 irabazi zion Irurita Bri. Azken emaitzak erakusten duenez, partida borrokatua eta berdindua izan zen, bi ordu eta laurden iraun zuen eta eguerdi partean 32 gradutan aritu ziren zortzi pilotariak. Doneztebe A talde txapelkunarekin Felipe Ganboa aritu zen sakelari eta berak lortu zuen, gainera, finaleko pilotari onenaren saria, Mikel Eizagirrenen eskutik. Pello Iribarren aritu zen numero eta Jose Mari Antzizar eta Jesus Mari Zabala laurdenak. Irurita Brekin Joseba Urtasun aritu zen sakelari, Gorka Urtasun bere anaia numeroa eta Xabi Ripa eta Jesus Etxenike laurdenak.

## FINAL GOGOANGARRIA

Bi taldeek maila ikaragarria eman zuten eta final gogoangarria eskaini zuten, «zoragarria» Laxoa Elkarteko Tiburtzio Arraztoaren erranetan. Partida gehienan baztandarrak izan ziren aitzinetik, 0-2, 1-2, 1-3, 2-3, 2-4 eta 4-6koa arte. Baina etxeokok joku segidan egin zituzten eta 8-6 aitzindu



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

## Aurtengo finalistak Doneztebeko plazan.

ziren. Iruritarrek ez zuten azken solasa errana eta zortzina berdindu zuten. Dagoeneko bi orduz ari ziren jokoan, bero saparen azpian eta ikusleak bihotzekoa jotzeko puntuan eta azken jokuak doneztebaren alde erori zen. Pena bakarra izan zuen finalak, bi taldeetako batek galdu egin behar zuela!

## PILOTAREN AGINTARI ETA IKERLARIAK SARI BANAKETAN

Sari banaketan, Dominique Botineu Nazioarteko Pilota Federazioko presidentea, Jon Oartzun Nafarroako Pilota Federazioko gurentea, Nafarroako Kultura Fundazioko Ja-

vier Almandoz eta Pilotarien Batzarrakako Jose Antonio Arroyo izan ziren. Horiez gain, Jose-txo Iraundegi pilotazalea edo pelotamano Kanariar Uharteetako luzeko pilota jokua iker-tzen duen Juan Manuel Hernandez Auta kazetaria izan ziren Bearzanan final handi hau ikusten.

## OITZ A HIRUGARREN

Abuztuaren 2an jokatu zen hirugarren posturako lehian, Oitz Ak 9 eta 8 irabazi zion Irurita Ari.

ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

**Finaleko pilotari onenaren saria Felipe Ganboa doneztebarrak jasozuen Mikel Eizagirrenen eskutik.**



## TXAPELDUNAK

1980 .....	IRURITA
1981 ..	DONEZTEBE
1982 ..	DONEZTEBE
1983 .....	OITZ
1984 .....	OITZ
1985 ..	DONEZTEBE
1986 ..	DONEZTEBE
1987 ..	DONEZTEBE
1988 .....	OITZ
1989 ..	DONEZTEBE
1990 .....	OITZ
1991 .....	IRURITA
1992 ..	DONEZTEBE
1993 .....	IRURITA
1994 ..	DONEZTEBE
1995 ..	DONEZTEBE
1996 ..	DONEZTEBE
1997 ..	DONEZTEBE
1998 ..	DONEZTEBE
1999 .....	ARRAIOZ
2000 ..	DONEZTEBE
2001 .....	ARRAIOZ
2002 .....	IRURITA
2003 ..	DONEZTEBE
2004 .....	IRURITA
2005 ..	DONEZTEBE
2006 ..	DONEZTEBE
2007 .....	IRURITA
2008 ..	DONEZTEBE



## PILOTA

# Lehen urte erdiko balantze baikorra egin du Txaruta Pilota Elkarteak

Belateko klub artekoa irabazi du

## ttipi-ttapa

Txaruta Pilota Elkarteak urteko lehen erdia balantze positiboa egin du eta bere pilotarientzat oparoa izan dela jakinarazi du.

Honela, Euskal Herriko klub arteko ligan, 22 urtez behetiko kategorian, Gaizka Otxandorena almandoztarra txapeldun izan zen.

Zizurko txapelketan ere txapeldun izan zen Gaizka Otxandorena 22 urtez behetiko kategorian, finala Txarutako bertzetik pilotari bati, Garikoitz Juanenea saldiastarrari irabazita. Haurren mailan, Arkaitz Untxalo iturendarra ere txapeldun izan zen Zizurren eta kadeteetan, Beñat Oronoz lesakarra azpitxapeldun.

## BELATEKO KLUB

### ARTEKOAN TXAPELDUN

Belateko klub arteko ligan, Txaruta Pilota Elkarteak izan zen txapelduna. Izan ere, sei kategoriatan sartu ziren Txarutako pilotariak finalean, nahiz eta horietatik bakarra irabazi. Hain zuzen, haurren A mailan izan ziren txapeldun Arkaitz Untxalo iturendarra eta Joseba Apeztegia iruritarra. Umeen B mailan Elizondoko Ander Jaurena eta Ibon Irazoki azpitxapeldun izan ziren, baita Xabier Gaztelu eta Ander Berho oro-

noztarrak kimuen B mailan, Aitor Almandoz lekaroztarra eta Iñaki Azpiroz iruritarra kimuen A mailan, Manu Irigoien erratzuarra eta Mikel Mindegia arraioztarra gazteen A mailan eta Garikoitz Juanenea saldiastarra eta Patxi Barberena iruritarra helduen A mailan ere.

Tafallako txapelketan, umeen mailan, Legasako Enaitz Anso izan zen txapeldun. Kimuen mailan, Iñaki Azpiroz iruritarra finala irabazi zion Andoni Espelosin sunbeldarrari eta haurren mailan, Joseba Apeztegia iruritarra irabazi zion Ugaitz Elizalde iturendarri.

Irurtzungo txapelketan, Antton Jauregi amaiurtarra txapeldun izan zen kadeteen mailan. Trintxerpeko txapelketan, Toni Uharte amaiurtarra azpitxapeldun izan zen helduen mailan.

Zaraitzuko txapelketan, haurren mailan txapela jantzi zuten Dario Trantxe elizondarrak eta Ibai Inda amaiurtarrak eta kimuen mailan, Asier Bertiz eta Sergio Oskoz elizondarrak azpitxapeldun izan ziren.

Zaramagako txapelketan, haurren mailan txapeldun izan zen Irurritako Joseba Apeztegia. Altsasuko txapelketatik



ARGAZKIAK: ARANTXA ARIZTEGI

**Goitian, Baztan eta Malerreko pilotariak, Nafarroako Herriarteakoa irabazi ondok. Beheitian, Barañaingo txapelketako Txarutako finalistak.**

bi txapel ekarri zituzten Txarutakoek: Enaitz Anso eta Iker Espelosinek umeen mailan eta Lesakako Beñat Oronozek eta Iturengo Mikel Kanpok kadeteen mailan.

## HERRIARTEKOAN, MALERREKA ETA BAZTAN

Nafarroako Herriarte Pilota Txapelketan, ume, kimu eta haurren kategoriak biltzen dituen txikien mailan Malerrekak izan zen txapeldun eta kadete, gazte eta helduak biltzen dituen helduen mailan Baztan. Gainera, Euskal Herriko txapelketan azpitxapeldun izan zen Baztan.

Errenteriako txapelketan, Beñat Oronoz lesakarra txapeldun izan zen kadeteen mailan. Lizarrako txapelketan,

1995ean jaiotako haurren kategorian txapeldun izan ziren Arkaitz Untxalo eta Ugaitz Elizalde eta 1994an jaiotako haurren artean azpitxapeldun izan zen Irurritako Joseba Apeztegia.

Tolosaldeko Hitza Torneoan, kadeteen mailan txapeldun izan zen Antton Jauregi amaiurtarra eta kimuen mailan azpitxapeldun Irurritako Iñaki Azpiroz eta Andoni Espelosin.

Barañaingo txapelketan, gazteen A mailan txapeldun izan ziren Iturengo Oier Bereau eta Arantzako Unai Iparragirre, finalean Manu Irigoien erratzuarri eta Mikel Mindegia arraioztarrari irabazita.

Umeen mailan ere txa-

peldun izan ziren Enaitz Anso eta Iker Espelosin. Haurren A mailan eta kadeteen mailan azpitxapeldun izan ziren Arkaitz Untxalo iturendarra eta Unai Zamorano lesakarra alde batetik eta Aritz Juanenea saldiastarra eta Mikel Kanpo iturendarra, bertzetik.

Itziarko txapelketan, gazteen mailan txapeldun izan zen Unai Madariaga urroztarra eta kadeteen mailan azpitxapeldun izan zen Aritz Juanenea saldiastarra.

Bertzetik txapelketa garrantzitsuetan, Antiguakoan edo Elgetako lau terdikoa, errate baterako, finalaren atarian gelditu ziren Txarutako pilotariak, baina dudarik ez da, lehen urte erdi bainakina egin dutela.

### AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

#### ERAKUSKETA

##### ZUGARRAMURDI

Oaia Peruarena Berako margolariaren erakusketa Sorginen Musean.

##### ELIZONDO

Irailaren 17a arte, Xabier Mendiorotzen akuarelen erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean. Astelehenetik larunbatera, 18:00etatik 20:30era.

#### FILMAK

##### BERA

Irailaren 14an, Ertz jaialdiaren barne *Sonar Ciudades* filma ikusgai. 17:00etatik aitzinera.

#### OSPAKIZUNAK

##### BAZTAN

Irailaren 7an Txalaparta besta Izpegiko Iepoan, Nafarroa Beherea eta Baztango Txalaparta taldeen ekimenez. Xehetasunak 25. orrialdean.

##### ITUREN

Irailaren 13an Joaldunen Eguna. Xehetasunak 4. eta 5. orrialdean.

##### LEGASA

Irailaren 6an eta 7an, Santa Leokadiako erromeria. Xehetasunak 19. orrialdean.

##### LEITZA

Irailaren 7an Taloaren Eguna plazan. Xehetasunak 20. orrialdean.

##### LEITZA

Irailaren 13an, Zaldi Eguna Xehetasunak 20. orrialdean.

##### SENPERE

Buruilaren 21ean, Kantu Xaharren Eguna. Xehetasunak 30. orrialdean.

### TELEBISTAKO TXOKOA



## Irailaren 8an hasiko da ttipi-ttapa telebistaren denboraldia

### BESTETAKO DVDAK SALGAI DAUDE

Uda hasiera herriz herri bestetako irudirik ikusgarrienak jasotzen ibili ondotik, oporrak direla eta, abuztuaren 25etik irailaren 7ra bitarte urteroko geldialdi tekniko egin du **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK**. Bi aste horietan, lehendik emititutako erreportaje eta saioren errepikapenak programatu dira. Zerbait aparatu eta tresnen urteroko errebisioak egiteko ere baliatu dituzte telebistako lankideek egun hauek. Orain, ordea, oporrak bukatuta heldu den astelehenean, hilak 8, itzuliko dira pantailara. Egunean eguneko berriak eta bertzelako programen emisioari ekinen diote berriro: erreportajeak, astear-

tero haurrentzako eskainiko den *Marimore* saioa... Horrez gain, berrikuntza gisa, nutrizio saioa estreinatuko da.

#### BESTETAKO DVDAK SALGAI

Lehen ere aurreratu bezala, **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** bestetako irudi eta elkarrizketarik onenak jasoz, DVDak prestatuak ditu. Hala, Doneztebe, Lesaka, Bera, Sunbilla, Arantza eta Etxalarko besten DVDak salgai daude eta interesatuek 948 635458 telefono zenbakira deitu beharko dute. Hor azalduko da nola formalizatu eskaera, eta nahi izanez gero, DVDa etxera bidaliko da postaz.

### DISKAK



Gor disketeak bere aurtengo lanen artean aukeraketa bat eginez bilduma bat kaleratu du: *Aurtengo gorakada*. Izen horrekin zortzi kantu bildu ditu: Bihotz bakartien kluba taldearen *Katala* taldearen *Betazalaka erauztean* abestia; Kerobia taldearen trilogiaren *Materia organikoa* eta gainerakoak lehen entregako *Mezu bat zurretako* kantua; Lauroba taldearen *Ez nintzen irten behar*, 121 db talde valentziarraren *Tormenta de gel* diskotik *Equilátera* abestia; Ezinean taldearen *Zuretzat* diskotik aukeratutako *Zure koloreak* kantua; Vendettaren *Credito hipotecario (No future)*; Hesian taldearen *Hau dena aldatzera doa* abestia eta Lendaris muertos taldearen *Heroes de la clase obrera* euren hirugarren lanetik *Vine, ví y me vendí* abestia. Horiek guztiak osatzen dute *Aurtengo gorakada* bilduma.

### BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (abuztuaren 15etik 22ra bitarteko prezioak)



#### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 24,00 € (=)

**Zerri gizena**  
1,310 € kilo. (=)

**Zerramak:**  
0,550€ Kg/bizirik. (=)



#### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 3,95 (=)

**1.koa** 3,65 (=)

**2.koa** 2,96 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,05 (=)

**1.koa** 3,75 (=)

**2.koa** 3,06 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruak 130,00 (=)

idixkoak 168,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 3,10/3,20

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 6,80/7,60

8-10 kilokoak: 5,80/6,30

## JAKIN BEHARREKOAK

# Zer dago «osasunarentzat onak diren gozokien» gibelean?

Gero eta ugariagoak dira osasuntsuak omen diren gozokien salmentak

Aditu talde batek heste-flora areagotzeko ezaugarriak dituzten karameluak diseinatzen zituenetik, ugaritu egin dira osasuntsuak omen diren gozokien produkzioa eta salmenta. Hala, badirudi merkatuan dauden zenbait txikle txantxarrak saihesten dituztela eta hainbat karameluk sudurreko kongestioa arintzen laguntzeko balio dutela. Benetan ote da horrela, edo marketing kontua ote da?

Fabrikatzaile aunitzek hartu du bide hori eta dagoeneko ugariak dira gorputzarentzat «osasuntsuak» direla dioten gozokiak. Produktu berriak ateratzeko ikerketak ere egiten ari dira hainbat enpresetan. Euren izaera ludikoa mantenduz kaloria guttiagoko produktuak arrakasta haundikoak dira. Azukrerik gabeko



Goxokien merkatua gero eta gehiago zabaltzen ari da, eta aldi oro zerbait berritzailea eskaintzen saiatzen dira fabrikatzaileak.

ko txikleek, erraterako, merkatuaren %38a bereganatua dute. Hala dio Karamelu eta Txikleen Espainiako Fabrikatzaileen Elkarteak egindako ikerketak behinik behin. Azukrearen ordeiz isomalt edo sorbitol bezalako edulkoratzaileak erabiltzen dituzte eta kaloria guttiagokoak dira horiek.

Badirudi, gainera, garai batean osasunarentzat kaltegarriak ziren karameluek orain, bitamina, kalcioa edo bertze osagai osasuntsuak dituztela. Txikleak «hortzak zuritzeko», «hortzak ez erortzen laguntzeko» edo «hatsa txarrera kentzeko» direla diote fabrikek. Are gehiago, merkatuan txikle energetikoak ere

saltzen dituzte, «kiloak galtzeko» omen direnak, eta gainera, «azala zaintzeko» balio dutenak.

Gozokietan azken berrikuntzak guarana, mentola eta te berdea dira. Guaranak kafeak baino kafeina gehiago omen du eta badirudi fisikoki indartzeko balio duela. Te berdea, berriz, argaltzen laguntzeko osagarrien artean erabiltzen da. Baina oraindik argitu gabe dago zenbateko dosia eta zenbat denbora behar den eragina izan dezan.

Espainiako Gozokien Elkartearen Federazioaren arabera, karameluen fabrikatzaileek grasa eta azukrea murrizteko bidea hartu dute, kaloria guttiagoko produktuak merkaturatuz. Halere, oraindik aunitzen baliogarritasuna frogatu gabe dago.

## LIBURUAK



Hitzak ogiaren truke

**Blanca ALVAREZ**  
IBAIZABAL

Santiago Balboa «Gora Errepublikan!» oihua entzun ahal izan zion utopiakide bati, hura metrailadorea askatu gabe hiltzen zen bitartean. Baina zoritxarra, azkenerako, egunerokotasun bihurtzen da. Eta norbaitek anaia arteko gerra batean dena galdu duenean -baita emaztea eta alaba ere-, eta indarraren mugamugan dagoenean, gauza bakar bat egin dezake bizirauteko: neskato bati istorioak kontatu ogiaren truke. Neskakta itsu batek aita ezezaguna aurki-

tuko du mendian iheslari. Istoria lehor, triste eta gordina azalduko zaigu, 36ko Gerrako galtzaileen ikuspuntutik. Gainera istorio nagusiaren barruan bertze kontakizunak txertatzen dira: Alejandro Balboa, bere emazte Maria eta honen aita gaiztoaren bizitzak; Andre Basi XVII. mendeko toskanarrarena, ezin gaiztoagoa zena; Sergio Novoa Castro kapitainaren ontziari gertatutakoa II. Gerra Mundialean. Liburuaren itzulpena Aitor Aranek egindakoa da.

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### BESTAK

#### ARRAIOZ

**Irailaren 5etik 8ra** Arraiozko bestak.

#### OITZ

**Irailaren 5etik 8ra** Oizko bestak. Xehetasunak 18. orrialdean.

#### ERATSUN

**Irailaren 5etik 8ra** Lokariko Amabirjin bestak. Xehetasun gehiago 23. orrialdean.

#### ELBETE

**Irailaren 12tik 15era** Elbeteko Gurutze Sainduaren bestak. Xehetasunak 26. orrialdean.

#### SARA

**Buruilaren 13tik 17ra** Sarako bestak. Xehetasunak 28. orrialdean.

#### LESAKA

**Irailaren 12tik 14ra** Bittiria auzoko bestak. Xehetasun gehiago 10. orrialdean.

#### SEMPERE

**Buruilaren 26tik 30era**, Ibarrun auzoko bestak. Xehetasunak 30. orrialdean.

### KONTZERTUAK

#### LESAKA

**Irailaren 19an**, Jabier Muguruzaren kontzertua Onin errekararen gainean, 22:00etan. Bortzrietako Euskaltegiak antolatuta.

#### BERA

**Irailaren 13an**, kontzertuak Ertz jaialdiaren barne: AMM, Charles Hayward, Xedh eta Stéphane Garin & Silvestre Gobart. 20:00etatik aitzinera Kultur Etxean.

**Irailaren 14an**, kontzertuak Ertz jaialdiaren barne: Jean-Luc Guionnet, Ennio Como Violeta eta Bizarra. 17:00etatik aitzinera.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.  
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da  
(nahi izanez gero argazkiarekin).  
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak



**Baztango**  
promoción inmobiliaria

**Etxebizitzaren errehabilitazioa  
Tasazio eta balorazioa**

**Ondasunen salmenta eta alokairua**

**Abokatua:**

- Proiektu urbanistikoak
- Lurzoruen gestioa
- Herentziak

Tfn. 948 630552  
Faxa 948 630106

Kattonberri karrika, 4  
31780 Bera. Navarra

## ANZABAL INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA,  
ULTZAMA ETA  
IPARRALDEAN.**

- Pisuak, apartamentuak,  
partzelak, baserriak, bordak,  
lokal komertzialak eta  
nabeak salgai.

**IPARRALDE ETA BIDASOA  
ALDERDIETAN.**

- Eskaintzagatik baserriak,  
bordak eta lurrak behar  
ditugu.

**ZUGARRAMURDI.**

- Baserria salgai 80.000  
metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere  
lurrarekin salgai.


Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

## ETXEBIZITZAK 101 Saldu

**LESAKA.** 229 m<sup>2</sup>ko familia  
bakarreko etxearen proiektua,  
lurrarekin eta lizentziakin  
salgai. Eremu urbanizatua  
ura, argia, urzikinen putzua...  
Promotorerik interesatua  
egonez gero, permutarako  
prest. 40 milioi Pta. ☎678  
526091.



**DONEZTEBE. ZAZPIGURUTZE  
PLAZAN 115 M<sup>2</sup>KO PISUA SALGAI.  
3 LOGELA, 2 BAINUGELA ETA  
TRASTELKUA. EGUZKITSUA ETA  
ESTREINATU GABEA.**

630 948271

## DONEZTEBEINGURUAN.

Etxe adosatu polita salgai.  
Sartzekoprest. ☎666044176.

**DONEZTEBE.** 100 m<sup>2</sup>ko  
pisua salgai Zazpigorutze  
auzoan. ☎639 184210.

**BERA.** Pisu salgai. 3 lo-  
gela, egongela, sukaldea,  
komuna, igogailua eta apar-  
kalekua. ☎606 586709.

**LESAKA.** Herri erdian da-  
goen 110 m<sup>2</sup>ko pisua sal-  
gai. Bista onak. Prezioaz  
solastuko dugu. ☎607  
769519/670 319380.

**ZUBIETA.** Baserria salgai.  
Etxebizitza berritua, herri-  
tik kanpo eta bide txarra-  
rekin. ☎650 714030.

**BERTIZARANA** (Narbar-  
te kanpaldian). 3 logelako  
pisu mobleztatua salgai, lu-  
rreko suarekin eta 175 m<sup>2</sup>ko  
lur eremu prestatuarekin,  
fruta-arbolak, etxetxo bat  
ura eta argiarekin. 180.400  
euro. ☎637 153329.



**ARANTZA.** Bi bizitzako  
etxea salgai, egoera one-  
an. Prezio negoziagarria.  
☎630 388154.

## ETXEBIZITZAK

### 102 Erosi

**ESKUALDEAN** borda bat  
erosiko nuke, lur eremuare-  
kin. ☎685 734971.

## ETXEBIZITZAK

### 103 Errentan eman

**IRUÑA.** Neska bat nahi da  
logela bat errentan hartze-  
ko Alde Zaharrean. Ekono-  
mikoa. ☎661 071618.

## ETXEBIZITZAK

### 105 Etxe konpartituak

**IRUÑA.** Bi neska pertso-  
na bat behar dute pisua kon-  
partitzeko Milagrosa auzo-  
an. ☎948 452258.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 Saldu

**DONEZTEBE.** 70 m<sup>2</sup>ko lo-  
kala salgai. Prezio nego-  
ziagarria. ☎620 011242.

**LESAKA.** Kuttuna denda  
traspasatzen da. ☎948  
637563.

**LESAKA.** 20 m<sup>2</sup>ko lokal ko-  
mertziala salgai. Albistur  
43. ☎659 609678.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 Errentan eman

**LESAKA.** Bittiria karrikan  
lokala errentan emateko.  
Ostatu edo soziedade be-  
zala erabiltzeko egokia.  
☎654 931531/948 637263  
(18:00etatik aitzinera deitu).

**LESAKA.** Albistur karrikan  
lur azpiko garajea erren-  
tan emateko. ☎618 962937.

**LESAKA.** Garajea eta tras-  
telekua errentan emateko.  
Antoiu 25. ☎948 637366.

## LURRAK/ORUBEAK

### 112 Saldu

**ITUREN.** 2.000 m<sup>2</sup>ko lur  
eremu eraikigarria salgai.  
Leku onean. ☎676 013103.

## LANA

### 301 Eskariak

**Doneztebeko emakume  
batek lan eginen luke.** Eus-  
kara, gaztelania, frantse-  
sa eta ingelesez badaki.  
Informatikan ezagutza eta  
gidatze baimen guztiak,  
baita ADR eta karretilara-  
koa ere. Esperientziadu-  
na. ☎679210910..

## LANA

### 302 Eskaintzak

**ETXALAR.** Etxalarko Ben-  
ta hotelean harreragilea be-  
har da. Euskara, frantse-  
sa, gaztelania eta ingele-  
sa beharrezkoak. Hitzor-  
dua eskatu elkarrizketara-  
ko. ☎948 635000.

**LESAKA.** Zerbitzari eus-  
kalduna behar da Atxaspi  
ostatuan. ☎948 637536.

**BERA.** Igeltsero ofiziala  
behar da. ☎617 755392  
(18:30etik aitzinera).

**ZUGARRAMURDI.** Ansa-  
las ostatuan neska bat be-  
har da barran aritzeko. Eus-  
kara eta frantsesa dakiz-  
kiena. ☎948 599082.

**BERA.** Ibardingo Benta Mi-  
gelen laguntzailea behar  
da sukaldean. ☎948  
631394.

**OIEREGI.** Bertizko Natur  
Parkeko Turismo Bulego-  
an langilea behar da. Bidali  
curriculum: Bertizko Na-  
tur Parkea, 31720 Oieregi  
edo *ostaitz@yahoo.es*.  
Informazio gehiagorako  
☎948 592421.

## MOTORRA

### 501 Salerosketak

**Xsara HDI 1.9-90** zaldi sal-  
gai. Egoera onean, 2004ko  
urrikoa. ☎650 948330.

**SANTESTEBAN Tailerrak**


**RENAULT**

**Clio Segurua DOHAIN 1go urtean.**

**ESKAINZA ZABALA**  
Kotxe ia berrietan (6-12 hilabeteko kotxeak):  
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Scenic, Laguna, Espace  
Leitzako bidea • DONEZTEBE • Tfnoa: 948 450 282 • 948 450 597

**Seat 600 E** modeloa salgai, 1970. urtekoa, 3.000 eurotan. Egoera onean. ☎609 455654/609487829.

**Iveco Stralis 480** kamioia salgai. 5 urte. Garraio txartelarekin. ☎948 630946 - 619 317168.

**Toyota Corolla** autoa salgai, 5371 BKT matrikuladuna. Granate kolorea. 205.000 km. Errebisioa pasatu berria. Gurpilak aldatuak. ☎948 638064.

**MOTORRA 502 Tailerrak**

**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

**ANIMALIAK****602 Salerosketak**

**Mutur horiko aharia** salgai, 4 urtekoa eta adarrik gabekoa. ☎ 948 634062.  
Border Collie arrazako bi **zakurkume** salgai. ☎687 544646/ 948 451832.

**Ehizako zakurkumeak** salgai. Sabueso eta Gas-kuñako grifoi urdinaren arteko nahasketa. Hilabete batekoak. ☎626 408728.  
**Villano de las Encarta-**

**ciones** arrazako zakurkumea salgai. Betizuak biltzeko eta basurde ehi-zarako egokia. ☎ 667 702267.



**5 urteko zaldia** eta urtebeteko bi moxal salgai. Denak monturakoak. ☎699 975403.

**Katu persa** salgai, urtebetekoa. ☎615 782292.

**DENETARIK 701 Galdu/aurkituak**

**BERA.** Euskalduna jate-txearen inguruan katu grisa galdu da. ☎ 948 630360.

**DENETARIK 702 Salerosketak**

**Ostatuko mahai eta aukiak** salgai. Egoera onean eta berriak. Elkarte etxe txokoetarako egokiak. ☎619 913375.

**Pressing Catch** ikuskizuna ikusteko 2 sarrera salgai. Urriaren 26an Iruñeko Anaitasuna pabilioian izanen da, 19:30etik aitzine-  
ra. ☎ 619 913375.

**urtebetetzeak**

**ASIER MARTIN**  
BAIONA etxalartarrak abuztuaren 23an 4 urte bete ditu. Zorionak eta muxu bat Etxalar eta Lesakako familia eta bereziki arba Mariaren partetik.



**ALAIN ZELAIETA**  
BERASATEGI beratarak 2 urte beteko ditu irailaren 3an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Donamariko **ANEK** 2 urte beteko ditu irailaren 16an. Zorionak mari saltxera!!! Muxu haundi bat Urko, Oihan eta Eiderren partetik.



Donamariko **OIHANEK** abuztuaren 31n bere lehenengo urtea bete du. Auniz urtez familiaren eta bereziki Urko, Ane eta Eiderren partetik.



**IKER** eta **SAIOA** beratarrek irailaren 6an eta 25ean 2 eta 4 urte eginen dituzte. Zorionak eta bi muxu familia guztiaren partetik.




Zorionak **EDURNE SANCHEZI**, irailaren 5ean bere lehenengo urtea beteko duelako. Zorionak eta muxu bat Sunbillako eta Irungo familiaren partetik.



Zorionak **EDURNE SANCHEZI**, irailaren 5ean bere lehenengo urtea beteko duelako. Muxu bat gurasoen eta bereziki Oihanen partetik.



**IZAR IRIARTE** igantziarra. Zorionak gure etxeko saltarinari irailaren 1ean 3 urte bete dituelako. Ongi pasa eguna Bera eta Igantzioko familiaren partetik. Pa eder bat.




Zorionak **ARANTZAKO AIORA** Irurriari irailaren 13an 4 urte beteko dituelako. Muxu bat Iradi eta Maialenen partetik. Prestatu txokolat goxoa!



**OIER AGIRRE** ARRETXEAK irailaren 16an 4 urte beteko ditu. Zorionak! Sunbillako familia, atautxi-amatxi, osaba-izeba, ama eta atta.




Zorionak **OIER!** Muxu haundi bat Maialen, Iradi, Ekiñe, June, Janire, Ibai, Oihan, Egoi, Xuban, Ane eta Beñaten partetik.



**EKAITZ BERTIZ** APEZTEA gure tigreak 5 urte bete ditu abuztuaren 22an. Zorionak Arantzeta eta Sunbillako familiaren partetik.



Sunbillako **IZASKUN ALTZURI, JAIONE OTXANDORENA, JUAN LUIS APEZTEGIA** eta **AMATRI JOXEPAK** urteak beteko dituzte irailaren 4an, 11n eta 12an. Muxu haundi bat eta ongi pasa eguna familia guztiaren partetik. A! Afari-berendu goxoa prestatu. Egunaren zain gelditzen gara!



**NIEVES** eta **XABIER** amatxi-bilobek urteak bete dituzte abuztuaren 23an. Zorionak Aurtizko familiaren partetik.



**XABIER MARIEZ-KURRENA** MIKEO aurtiztarrak 3 urte bete ditu abuztuaren 23an. Zorionak Aimar, Izaro eta Uxue lehengusuen partetik.

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.


www.ttipi.net




**KATTI IRASTORZA URDANITZ** beratarrak 7 urte bete ditu abuztuaren 16an. Zorionak ttiripittinxori familiaren partetik.



**IRATI FAGOAGA** beratarrak 8 urte bete ditu abuztuaren 16an. Zorionak Marixkoneko lagunaren partetik.



**OIER LARRETKEA** beratarrak 8 urte bete ditu abuztuaren 16an. Zorionak cow-boy inauterietako taldearen partetik.



**Irungo NAROA PERURENA VALEROK** 7 urte bete ditu abuztuaren 1ean. Zorionak ttirengo amatxi, izeba-osaba eta Aizoango izeba, osaba Janire eta Iraiaren partetik.



**Irungo NAROA PERURENA VALEROK** 7 urte bete ditu abuztuaren 1ean. Zorionak gure etxeko printzesari atta, ama eta bereziki Unaxen partetik. Muxuak.



**IBAN eta EIDER OLAETXEA** lesakarrak abuztuaren 8an eta irailaren 18an 3 eta urte bat beteko dituzte. Muxu pare bat gure bi ttikiztat familiaren partetik.



**MADDALEN AROZENA FRESNEDA** lesakarrak abuztuaren 18an 7 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi haundi bat atta, ama eta bereziki Enaitzen partetik.



**ENAITZ AROZENA FRESNEDA** lesakarrak irailaren 26an 6 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi haundi bat atta, ama eta bereziki Maddalenen partetik.



**MADDALEN eta ENAITZ AROZENA FRESNEDA** urteak beteko dituzte. Muxu haundi bat biei Doneztebe eta Lesakako aita-xi-amatxien partetik. Ongi pasa eguna.



**EGUZKI eta ALAITZ** donamariarek 19 eta 7 urte bete dituzte abuztuaren 9 eta 27an. Zorionak eta muxu bana zuren familiaren partetik.



**LANDER LASAGA GOIENETXE** etxalartarrak 2 urte bete ditu abuztuaren 20an. Zorionak familia guziaren eta bereziki Miren, Joseba eta Aritzen partetik.



**AROA ZUBIRI ARBURUA** leitzarrak 8 urte bete ditu abuztuaren 8an. Zorionak eta muxu pila bat aiton, amona, osaba, izeba eta lehengusuen partetik.



**NEREA ARREGI** doneztebarrak 3 urte bete ditu abuztuaren 19an. Zorionak familiaren partetik eta bereziki Mikelen partetik.



**LOREA AGIRRE SARRATEAK** 4 urte bete ditu abuztuaren 15ean. Bere familiaren eta bereziki atta eta amaren partetik muxuak gure printzesitari.



**ANDREA eta MARIA DE RUEDA** doneztebarrak irailaren 5ean 8 urte bete ditu. Zorionak Arantzako familia eta bereziki Imanolen partetik.



**ANDREA DE RUEDA** doneztebarrak irailaren 5ean 8 urte bete ditu. 8 muxu haundi maitea, guraso eta bereziki Imanolen partetik.



**AHIELEN IRAZOKI** Ezkurra sunbeldarrak urte bat beteko du irailaren 2an. Zorionak sorginari Saioa, Lorena eta bereziki Ekiren partetik.



**Zorionak AHIELEN IRAZOKI** irailaren 2an bere lehenengo urtea beteko du. Zorionak eta muxu pila bat atta eta amaren partetik.



**ARITZ LEONIS GONZALEZ** 5 urte bete ditu abuztuaren 21ean. Aunitz urtez eta muxu bat Berako aita-xi eta amatxien partetik.



**Zorionak LEXURI AROTZENA PORTU** lesakarrak 2 urte beteko ditu irailaren 15ean. Aunitz urtez gure deabru ttikiari, aita, ama eta Ortiren partetik.



**LEXURI AROTZENA PORTU** lesakarrak 2 urte beteko ditu irailaren 15ean. Aunitz urtez gure deabru ttikiari, aita, ama eta Ortiren partetik.



**LEXURI AROTZENA PORTU** lesakarrak 2 urte beteko ditu irailaren 15ean. Zorionak familia osoaren partetik, bereziki Orti anaieren eta Porrotz lagunaren partetik. Segi beti bezain bihurri, katxiporreta!!!



**OLATZ PAGOLA ROMANO** beratarrak 2 urte bete ditu abuztuaren 26an. Zorionak ataxi, amatxi, osabak eta izebaren partetik. Muxu haundi haundiak.



**OLATZ PAGOLA ROMANO** beratarrak 2 urte bete ditu abuztuaren 26an. Zorionak bihotza! Muxu haundiak attato, amatto eta bereziki Nahiaeren partetik.



**OIER JUANIKOTENA CALLEJA** elizondarrak urtea bete du abuztuaren 8an. Zorionak osabak, izebak eta bereziki amatxi, Laura eta Iulen partetik. Muxu haundiak.



**BEÑAT eta OIER ERRO MUJIKARI** aunitz urtez familia guziaren partetik, irailaren 5ean 6 urte beteko dituztelakoz. Muxu bat.



**4 urte! Zorionak JOSEBA.** Abuztuaren 31n egun zoriontsua pasatu dezazula. Zure anaia Mikel eta familia guziaren partetik muxu haundi bat.



**IRATI eta URKO OIARZABAL** doneztebarrak abuztuaren 23an eta irailaren 21ean 6 eta 4 urte beteko dituzte. Zorionak familia guziaren partetik eta ongi pasa egun horiek. Muxu asko eta haundiak zuentzako.



**Zorionak IGOR!** Aunitz urtez "Las Locas"-en partetik. Animo eta muxu pila bat.



**Berako JULENE GOIA GARCIAK** urteko bat bete du abuztuaren 28an. Muxu pottolo bat familia guziaren partetik. Zorionak garbantxito.



**Berako JULENE eta JOAQUIN** biloba-aitaxiek urteak egin dituzte abuztuaren 28 eta 30ean. Mila kilo zorion eta PAAAAA handi handi bat denen partetik.



**ARITZ LEONIS GONZALEZ** 5 urte bete ditu abuztuaren 21ean. Zorionak izeba Maitebxi, osaba eta Ioritz eta Iker lehengusuen partetik.



**IORITZ GONZALEZ GAMIO** gazteluarrak 2 urte bete ditu abuztuaren 28an. Zorionak aita, ama eta Yaiza arrebaren partetik.



**IORITZ GONZALEZ GAMIO** gazteluarrak 2 urte bete ditu abuztuaren 28an. Zorionak familia osoaren partetik.

**deskontuak**  
DENDA HAUTETAN EROSTEAGATIK

## AGARA

AGARA kirolak • BERA  
%5eko deskontua kirol artikuluetan

## Deñe

DEÑE Lentzeria - Mertzzeria • LESAKA  
%10eko deskontua lentzerian

## BERAUTO

BERAUTO Tailerra • BERA  
%5eko deskontua errekanbioetan

**Kalotxa.**  
**Zapatadenda.**  
Osagarriak. Konponketak.

KALOTXA zapata-denda • ELIZONDO  
%5eko deskontua, 18€tik gorako gastuan

**MASTER**

## ALTZURI

ALTZURI etxetresnak • LESAKA  
%5eko deskontua etxetresnetan



FOTO ZALDUA • ELIZONDO/DONEZTEBE  
%10eko deskontua, produktuetan

## SARIDUNAK:

- 1 7 liburu (Elkar):  
Garbiñe Sarasola (Lesaka)
- 2 KAO Sumendiko Sekretua PC-ROM:  
Izaskun Bazterrika (Ituren)
- 3 Piratak altxorraren bila  
Mahai-jolasa:  
Izaskun Zubialde (Zubieta)
- 4 Txapela Buruan 2 kamiseta:  
Amaia Goia (Bera)  
Nerea Mitxelorena (Etxalar)
- 5 BKZ 2 sarrera:  
Joxe Apeztegia (Ituren)
- 6 Oninart 2 kamiseta:  
Julen Zubieta (Lesaka)

SENDAVIVA 4 sarrera  
Amaia Larrea (Leitza)

AQUARIUM 2 sarrera  
Ana Bengoetxea

**ORAIN** [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)  
bitartez ere parte har dezakezu. Animatu!

**ESKATU ZURE TXARTELA**  
**948 63 54 58**



# ttipi txartelarekin beti irabazten da!

# 11 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu  
astelehenetik ostiralera  
09:00-16:00 Tel: 948 63 54 58



1 **SEI LIBURU**  
Xola eta Angelito  
Sorgin Hortz Gabea  
Oz-eko Aztia  
Ilargia ezpainetan  
Ogatzarrok  
Ez da gaua begietara etortzen

Lote 1  
**erein**  
argitaletxea  
[www.erein.com](http://www.erein.com)



Kao Sumendiko  
Sekretua  
**PC-ROM**

2 Lote 1  
**ELHUYAR**  
[www.elhuyar.com](http://www.elhuyar.com)



3 **Naturpolis  
MAHAI-JOLASA**  
Lote 1  
2 KAMISETA  
2 Lote  
**HARPIDETZA**  
Argia aldizkariaren  
6 hilabeteko harpidetza  
2 Lote

**ARGIA**  
[www.argia.com](http://www.argia.com)



4 Euskal  
jolasen bilduma I  
**CD-ROM**  
Lote 1

**U**  
[www.aisia.net](http://www.aisia.net)



5 **KAMISETA**  
2 Lote

**txapela buruan**  
11 ibili munduan  
[www.txapelaburuan.com](http://www.txapelaburuan.com)



6 **BI KAMISETA**  
Lote 1

**oninart**  
[www.oninart.com](http://www.oninart.com)

## ttipi saskia TTIPI SASKIAren ZOZKETAN JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE

Bidali SMSa idatziz **TTIPI SASKIA** eta zure **IZEN-DEITURA 5767** ra



**SENDAVIVA**  
Aventura y diversion para toda la familia

Lote 1  
4 sarrera  
2 heldu+2 haur



**AQUARIUM**  
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN  
DONOSTIA  
943 44 00 99  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

Lote 1  
2 sarrera

Zozketan parte hartzeko epea: irailaren 3tik 10era. Irabazleen izenak irailaren 18ko aldizkarian argitaratuko dira. Mezuaren kosta 1.20€ (BEZ gabe). Zure datuak ttipi-ttaparen fitxategian gordeko dira aurrerantzean izanen diren eskaintzen berri emateko. Zuzenketa edo deuseztatpenen bat egiteko deitu 948 63 54 58ra.

# EUSKARAZ jantzi el euskera **viste**



## **BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA**

·Lesakako Matxinbeltzenea Tel. 948 637 796  
·Berako Ricardo Baroja eskolan Tel. 948 625 019  
astearte eta ortzegunez 18:00etatik 20:00etara

[bortziriak@ikanet.net](mailto:bortziriak@ikanet.net)

## **MALERREKAKO EUSKALTEGIA**

Donezteben, Parrokia kaleko 1ean  
Tel. 948 451 555

[malerreka@ikanet.net](mailto:malerreka@ikanet.net)

## **LEITZALDEKO EUSKALTEGIA**

Leitzako Udaletxean  
Tel. 948 610 776

[leitza@ikanet.net](mailto:leitza@ikanet.net)



**MATRIKULA ZAITEZ**  
irailaren 30a baino lehen  
apuntate al euskera  
euskara ikasi!